

ELKARRIZKETA AINHOA GUENAGA

# Arrasate

P R E S S

2000.eko  
urtarrilak 21  
480. zenb.




## Dolaratarrak, 20 urte txaloartean

IKUSPEGIA: JM VELEZ DE MENDIZABAL • EUREN IKUSPUNTUTIK: EVA EGIZABAL  
ORAIN ETA HEMEN: ZERRAJERAKO ETXEAK • KULTURA ELKARRIZKETA: ABADDOM

# Ford Gama 2000



 **MUGARRI**

DEBA GARAIKO  
KONTZESIONARIO OFIZIALA

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54



# Inflazioaren inguruan

azko prezioek gora egin zuten era ulergaitz batean, batez ere urte hasierako iragarpenek markatzen zuten mailarekin alderatuta. Adituak okertu egin dira, berriz ere, eta ostera egiaztatzen da ekonomia oso gai apatetsua eta haizakorra dela, ez baitago sekula bete bete asmatzerik. Igoera horrek dakartzan ondorioetako bat, noski, gizabanakoen erosteko ahalmenaren galera da.

Inflazioaren igoera handiak ez gaitu, dena dela, ustekabeen harrapatu, urtearen bilakaerak porrotaren itxura guztiak baitzituen. Diotenez, Estatu Batuetan ere antzerako digitoetan igo da eta hango diruaren kostua ez dela garestituko esan du Erreserba Federalesko buruak. Gure artean, berriz, ekonomia hazkudea %3,7 izan delarik,



JM Velez de Mendizabal

eta kontsumo pribatua gorantz doalako, seguruenik diru ofiziala garestitzea erabakiko du Espainiako Bankuak.

Eta albiste, zurrumurru eta egiaztapen horien artean, munduko burtsak gorantzako lasterketan ari direla dirudi. Espekulazioak tokia hartu du gure ohiko bizitzan eta ez gara batere harritzen, enpresen arteko norgehiagoka

basatian ordaintzen ari diren diru kopuru kalkulagaitzen aurrean. Eta hori orain arte Wall Streeten bakarrik gerta zitekeela iruditzen zitzaigun arren, geure esparru txikian ere bizi ari gara.

Merkatu finantzieroen itzal eroa alde

batera utzita, eskal ekonomiak ez bide du urte txar bat bizi izan, iazko emaitzei bagazozkie. Eta hori albiste ona da, enpresak irabaziak sortarazteko baitaude, eta eragina denontzat izango da onuragarria. Itxura

guztien arabera, hamarkada (1991-2000) honen hasieran euskal enpresek galdutako tokia berreskuratu da. Adituak diotenez, gure enpresek gogor egin dute apustu nazioarteko merkatuetan eta garaile ateratzen ari dira. Hori merituz ikaragarri handia da, kontuan badugu zer nolako presioa jasan behar duten enpresek, alde guztietatik.

Berrikuntzak inbertsioen kapitulua aberastu du, orain arte historiako beste edozein arotan baino dezente gehiago. I+G deritzanak ere eragin positiboa ageri du eta produktibitatea —edozein enpresaren bitartekorik funtsezkoena— Europako mailara iristen ari dela diote. Kasualitate hutsa? Oinarritzko politika industrialaren ondorioa? Batek daki! Ekonomian inoiz ez da jakiten. Langa-beziaren kopurua jaitsi egin dela eta, norabide berean jarraituko du etorkizun hurbilean? Inor ez da erantzuna ematera ausartuko, ez baitago inoren esku aldagai guztien kontrola.

Ona izango da, ekonomia ontasuna errealitatea den bitartean, gutxieneko mekanismoak jartzea ongizatearen mugak toki guztietara hedatu daitezela. ■

## Euskal ekonomiak ez bide du urte txar bat bizi izan, iazko emaitzei begiratuta

*“Euskal Herrian bertakoa den gauza bakarra euskara da. Beste guztiak unibertsalak dira. Beraz, txistua edo txalaparta bezain euskalduna da gaita”.*

**Enrike eta Esteban Dolara**

**603.284.736**

**pta.ko aurrekontua du Zerrajeran egin nahi den urbanizazioak.**

Dagoeneko Udalak onartu du urbanizazioaren lehenengo aldia eta udan hastekoak dira lanak. San Josepen hasi eta UCEMen erlojurainoko zatian hasiko dira lanean. Proiektuaren arabera ekimen pribatuko 220 etxebizitza egingo dira.

ITURRI ONETIK

## Arrasatetik Elgoibarrera

Zortzi urte badira gutxienez Jose Mari Larrañaga KUIko zuzendaria garai honetan Elgoiberraino korrika joaten dela. Han, igande honetan bezala, Juan Mugerza krosa jokatzen da eta seguruenik, aurreko urteetan bezala Larrañagak emango du irteerarako abisua.

Goizeko 7 eta erdietan abiatuko da Larrañaga Arrasatetik; berak dioen bezala, “gaua izango da artean, baina adinean aurrera joan ahala, goizago irten beharra daukat, garaiz iristeko”.

Gauak baino beldur handiagoa ematen omen dio, ordea, Elgoibarrera iritsi baino lehen errepide bazterrean dagoen baserriko txakurrak. Azken urteotan, korrika datorrela antzeman eta susto galanta ematen omen dio.



**ARRASATE PRESS**

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otolara kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa). Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89 E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arrolobe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Arantzazu Loidi. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Maite Urriolabeitia (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Maddi Trutxuelo. **Aste-buruetako berriemakileak:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Inzar, Udaleko Gaztania Saita, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaka-ka arduradunak:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Leire Kortabarria.



Arrasateko Udaleraren laguntzaz



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntzaz



Eusko Jaurlaritzako Kulturaz Sailaren laguntzaz

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 21**  
 • Azkoaga, Ferrerías.
- Larunbata, 22**  
 • Azkoaga, Iturriotz.
- Igandea, 23**  
 • Korkuera, Musakola.
- Astelehena, 24**  
 • Irizar, Erguin.
- Astearte, 25**  
 • Amezua, Santamarina.
- Asteazkena, 26**  
 • Zabala, Zarugalde.
- Osteguna, 27**  
 • Ruiz, Maalako Errabala.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
 Iguatatoroa ..... 943 71 26 91  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 943 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 943 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Larrialdiak**  
 SOS Deiak ..... 112  
 Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
 DYA ..... 943 78 71 57
- Anbulatorioak**  
 Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
 Arrasate  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria ..... 943 03 52 50  
 • Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
 • Ikuskatzailea ..... 943 03 52 52  
 • Kanpoko kontsultak: ..... 943 03 53 11  
 Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
 Aramaio ..... 945 44 53 40
- Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44
- Udalzainak**  
 Oñati ..... 943 78 04 11  
 Bergara ..... 943 77 91 06  
 Arrasate ..... 943 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
 Eskorialza ..... 943 71 44 07
- Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
 Udai taldea ..... 943 79 09 00  
 Udai taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
 Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 ..... 943 79 78 44  
 ..... 943 79 76 78
- Garraioak**  
 Taxiak ..... 943 79 12 22  
 PESA ..... 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**  
 Monterron ..... 943 77 01 05
- Irratia**  
 Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## ARRASATEKO SOLIDARIOEI

**G**utun honen bidez, Arrasateko Senideak eta Amnistiaren Aldeko Batzordekideok gure eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiegu Gabon hauetan, berriz ere, beraien konpromiso eta laguntzaz errepresaliatuei mezu solidarioa helarazi dietelako.

Bereziki, Gose Greban parte hartu zuten Arrasateko 20 lagunei, Arrasateko Udalarari Uarkape instalazioa uzteagatik, eta egunero egunero han egoten zirenei, haien laguntzarik gabe ez baitzen posible izango hau dena aurrera eramatea. Aportazio ekonomikoa eta laguntza eman zuten dendari eta enpresei, jasanezina den dispersioaren kalte ekonomikoa arintzen laguntzen dutelako. Txoznan lan egin duten koadrila eta taldeei, diru laguntza lortzeaz gain, nolabait herriko errepresaliatuek ere jaietan parte hartzea lortzen baita.

Ez zaituztegu ahaztu nahi, ez bakarrik jaietan, baizik eta errepresaliatuak etxeratzeko egunero lan egiten duzuenok, zuen laguntza ezinbesteko baitzaigu.

Bukatzeko, antolatu behar diren iniziatiba guztietan parte hartzera animatu nahi zaituztegu, badakigu-eta denon artean errepresaliatuak Euskal Herri libre batean bizi izatea lortuko dugula.

Agur bero bat,

*Arrasateko Amnistiaren  
 Aldeko Batzordea*

## ERREGE KABALGATAK ESKERRIK ASKO

**U**rtarrilaren 5ean, urtero bezala, Hiru Erregeak Arrasatera etorri ziren. Egun horretako alaitasunak urte osoan zehar irautea espero dugu eta denok Erregeek ekarritako opariak goza dituzagula.

Erregeei ongi etorria emateko, Arrasateko parrokiatako gazte taldeok kabalgata prestatu genuen. Eskerrak eman nahi genizkieke lan horretan lagundu diguten erakundeei: Arrasateko Udala, San Viator Ikastola, Eroski, La Caixa, Iturbide Egoitza, Gurutze Gorria, SUDC, Kutxa... Eskerrik asko gurekin lanean aritu den jende guztiari ere, euren laguntza ezinbestekoa izan baita.

Besterik gabe, 2000. urte zoriontsua izan dezazuela denok eta hurrengora arte.

*Errege Kabalgatako  
 Talde Antolatzailea*

*Arrasateko Parrokietako  
 Gazte Taldeak*

**O**nartezina eta lotsagarria da gaur egun Deba ibaiak dakarren ur kutsatu eta zikina eta horrek berekin dakarren ondorio jasangaitz eta nekagarria.

Beraz, alde horretatik, eskakizun berezi bat luzatu nahi nieke gutun honen bidez Deba Goieneko Mankomunitateari eta bereziki herri bakoitzeko udalei, gaur egun lanean ari diren ordezkari bakoitzak edo ingurugiroarekin zerikusia duten gaitan ari direnek, benetan merezi duen seriotasunez hel diezaioten gai horri, Deba ibaiaren egoera larriari. Ardura dutenek berriz ere ikerketa sakon bat egin dezatela proposatzen dut, benetan jakitera hel gaitzen norainoko kutsadura mailetara iristen den, gero lehen egingdakoen emaitzekin konparatu ahal izan dadin. Azken ikerketa haietatik uraren kalitateak hobera edo okerrera egin duen jakiteko.

Eta azkenik, hainbeste aldiz bete gabe geratu den konpromisoa ere berreskuratzea, hau da, Deba ibaiko uraren kutsadurak gora egin badu, gure esku dagoen guztia egin eta horretarako baliabide guztiak erabiltzea. Horrela, gure errekek lehen zuen txukuntzuna eta xarma berreskur dezan.

*Joseina Barrutiabengoa*

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
 Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN**  
 jatetxea

Garagartza auzoa  
 Tel.: 943 79 76 58  
 ARRASATE

**M**

**MEMESA**  
 Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

# Zer iruditzen zaizu Jose Maria Setienek gotzain kargua lagatzea?

Jose Maria Setienek joan den asteko ostegunean laga zuen kargua.



**Rosa Maria Castrillo**  
(37 urte)  
Langilea

Osasun arazoengatik ez dut uste laga behar lukeenik. Hori ez da nahikoa arrazoi.



**Asier Goikoetxea**  
(23 urte)  
Ikaslea

Berak osasun arazoengatik utzi duela esan du, baina baliteke beste zerbaitegatik izatea.



**Tomasa Espejo**  
(69 urte)  
Erretiratua

Donostiako gotzaina izanda, logikoa da euskaldunekin harreman ona izatea eta erretiratu artean gelditu behar izango litzateke gotzain bezala.



**Dulce Fernandez**  
(24 urte)  
Langilea

Nire ustez ez luke kargua laga behar. Nire ustez ondo lan egiten zuen eta berak segitu beharko luke karguan.



**Juan Mari Aranburuzabala**  
(55 urte)  
Langilea

Egia ote da osasun arazoengatik laga duela? Dena dela, berak jakingo du, baina beste arrazoiren bat dagoelakoan nago.




**German Gutierrez**  
(58 urte)  
Langilea

Joan denak gauza positiboak egin baditu, eskertzekoa da; datorrenak berak baino gehiago egin behar badu, ongi etorria.



**Pilar Barandiaran**  
(71 urte)  
Erretiratua

Oso gizon handia da eta jende askok ez duela ulertu uste dut. Disgustu asko sortu du, baina egiak ere esan ditu.



**Jesus Agirreurreta**  
(67 urte)  
Erretiratua

Ondo iruditzen zait; gai-xorik dagoelako utzi duelako. Oso pertsona ona da eta pena bat da.

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea 1-0-4  
Telefonoa: 791844  
Faxa: 792944

*Sagardotegia Txotx egin!*

**ITURRIETA**

Airaga auzoa  
Tel.: 945 44 53 85  
ARAMAIO

# 21

## ostirala

■ **ZINEA**

*La Lengua de las Mari-  
posas*, 19:00 eta 21:30etan,  
Alai zineman.

■ **MANIFESTAZIOA**

“Euskal Herriak du hitza  
eta erabakia. Euskal presoak  
Euskal Herrira” leloarekin  
kale agerraldira deitu du Gre-  
ba Batzordeak. 19:00etan,  
Seber Altuben.

■ **BENITO LERTXUNDI  
OÑATIN**

Benito Lertxundik kon-  
zertua eskainiko du aspaldi-  
ko partez, Oñatiko Zubikoa  
Polikiroldegian, gaueko  
22:30etan. Sarrera aldeaz aurre-  
tik erosita, 1.200 pezeta kos-  
tako da. Leihatilan 1.500. Gau-  
te txartelarekin 1.000 pezetan  
eskuratu ahal izango dira.

# 22

## larunbata

■ **ZINEA**

*Tarzan*, 17:00etan, eta *El  
Fin de los Días*, 19:30 eta  
22:00etan, Alai zineman.

■ **ESKI IRTEERA**

Goizeko 5:00etan Garibai  
kaletik irtengo da Besaidek  
Tena bailaran antolatutako  
eski irteerarako autobusa.

■ **AL-ANDALUSEN 10.  
URTEURRENA**

Al-Andalus Kultur Elkar-  
teak bere 10. urteurrena ospa-  
tzeko hainbat ekintza antola-  
tu ditu gaurko. Goizeko  
11:00etan Lasarteko *Hijos de  
Andalucía* elkarteari harrera  
egingo zaio. 13:00etan, sar-  
dina-jana izango da, Santur-  
tzi buru delarik. Bi ordu gero-  
ago, Al-Andalus eta Santur-  
tziren arteko anaitze bazkaria  
izango da. Arratsaldeko  
18:30etan amaituko dira gaur-  
ko ekitaldiak, Santurtzi eta  
Al-Andaluseko taldeen eman-  
aldi batekin.

# 23

## igandea

■ **ZINEA**

*Tarzan*, 17:00etan, eta *El  
Fin de los Días*, 19:30 eta  
22:00etan, Alai zineman.

# 24

## astelehena

■ **ZINEA**

*El Fin de los Días*, 19:00  
eta 21:30etan, Alai zineman.

■ **BILERA DEIA**

Greba Batzordeak bilera  
egingo du Arrano elkarte  
18:00etan. 19:30etan Batzar  
irekia egingo dute Udaletxe-  
ko Osoko Bilkura aretoan.



LEHENENGO URTEURRENA



*“Gogorra da  
zu gure artean ez ikustea  
baina bizi garen artean  
ez dugu, ez,  
zure alaitasuna  
inoiz abaztuko.*

*Gero arte”*

*Laureano Letamendi Ojea*

Urte-meza: Urtarrilaren 23an eguerdiko 12:30etan,  
Arrasateko Joan Bataiatzailearen Parrokian izango da.



ESKER ONA

2000.eko urtarrilaren 13an hil zen

**Iñaki Etxeberria Arrese**

Bere familiak bihotzez  
eskertzen ditu jasotako doluminak  
eta hileta elizkizunetara etorri izana.

# 25

## asteartea

### ■ ZINEA

*El Fin de los Días*, 19:00 eta 21:30etan, Alai zineman.

### ■ KOLDO AMESTOYREN IPUIN KONTAKETA

Koldo Amestoy ipuin kontalaria Monterongo Haur Liburutegian izango da kontaketa saio bat eskaintzen. 8 urtetik gorako umeei dago zuzenduta. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da.

### ■ SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Besaidek urtarrilaren 30erako "Lizarrusti-Amezketan" mendi irteera eta sagardotegira irteera antolatu ditu. Izen ematea urtarrilaren 25,26 eta 27an izango da, Besaideren egoitzan, 19:30-20:30.

### ■ ESKI KANPAINA

Besaide mendi elkarteak astebururo egingo dituen eski irteeretan izena emateko astelehen, asteartea eta asteazkenetan 18:30-19:30 joan Besaideren egoitzara.

### ■ IRUÑERAKO TXARTELAK

Amnistiaren Aldeko Batzordeek eta Gestorek urtarrilaren 22an Iruñean egingo duten kale agerraldia. Autobusetarako txartelak Irati tabernan salgai.

### ■ MARTXOAK 8KO LEHIAKETA

"Emakume! Hartu hitza eta erabakia" da 2000.eko Martxoaren 8ko leloa, eta esaldi hori erabili beharko da. "Martxoaren 8ko" IV. Kartel Lehiaketan parte

hartzeko, otsailaren 18ra arte duzue aukera eta udaletxera bidali beharko dituzue lanak. 70.000 pezeta jasoko ditu irabazleak.

### ■ YOGA ELKARTEAREN IKASTAROA

Arrasate Yoga Elkarteak eskuen sendatzeko ahalmenari buruzko ikastaroa antolatu dute. Urtarrilaren 22 eta 23an izango da, Natura Enean. Larunbatean 16:00-20:00, eta igandean 10:00-14:00. Horrez gain, elkarte horrek beste hainbat ekintza ere antolatu du. Apirilaren 15era bitartean iraungo du masaje ikastaroak, Altamirako Yogako aretoan, larunbatero, 17:00.

### ■ EKINEKIN ESKULANETAN

Hasi da Ekin Emakumeak elkarteak antolatutako eskulan ikastaroa. Joan den asteartean hasita eta apirilaren 11ra arte segituko du. Ekin Emakumeak elkartearen egoitzan dira eskolak, Mila Alkizu irakaslearen eskutik, asteartero 15:30.

■ **UR ETA ZABOR TASA**  
1999.ko hirugarren hiruhilabeteko ur eta zabor tasa ordaintzeko epea hurrengo ostiralean amaitzen da. Horren ondoren, %20ko gainkarguarekin kobratuko dira.

### ■ GOIKOBALU TXIKIK DEIALDIA

Goikobalu Txikik abestera gonbidatzen du 8 eta 15 urte bitarteko edozein. Gura izanez gero, hurbil zaitezte Gazteluondoko Ikastolako kantxaren azpiko aretora, asteazkenero 19:30etan, edo ostegunero, 19:00etan.

### ■ MERKATARIENTZAKO INFORMATIKA

GATCek antolatu duen merkatarientzako informatika ikastaroak urtarrilaren 28rarte iraungo du. Bastida akademian izango dira eskolak, arratsaldeko 14:15etan, dendariei ordutegi eroso eskaintzeko.

# 26

## osteguna

### ■ KALE AGERRALDIA

Greba Batzordeak deituta, kale agerraldia egingo da 19:00etan Seber Altuben. Gaueko 22:00etako burrundara deitu dute.

### ■ LIBURU AURKEZPENEA

Jose Maria Sanchez Carrionek "Txepetx"en *Márgenes de encuentro* liburua aurkeztuko du gaur, Monterronen, 19:00etan. Solasaldi irekia egongo da ondoren. Mugimendu alternatiboak eta euskalgintzan ari diren guztiak daude gonbidatuta.



## ESKER ONA

2000.eko urtarrilaren 13an hil zen  
**Lorenzo Urrutia Arregi**

Bere emazte Mercedes, koinata eta ilobek jasotako doluminak eta hileta elizkizunetara etorri izana eskertzen dute.

**USTEAK USTE**

*Bai ala ez?*

Joan den asteburuko kale agerraldien aurrean lagun esan zidan: "badakizu nola deitzen dioten Lizarragarazi? Liskarra-Garazi". EAJ, EA eta Ezker Batuak astea eman zuten agerraldia antolatzen eta EHk, azkenean, Bilbon egon zen. Euren modura abertzaleen erdi batasun bat adierazi zuten. Ez omen da hori gertatuko EHk deitu duen grebarekin. Eusko Jauriritzak adierazi duenez "ez da oztopatuko greba egiteko eskubidea; ezta ere greba ez egitekoa ere".

Ez dirudi alderdi abertzaleen arteko komunikazioa erraza denik. Baina guztiak egiten dute elkarrizketaren aldeko apustua. Eusko Jauriritzak oraintsu adostu du Espainiako gobernuarekin kontzertu ekonomikoaren salaketak kentzea. Erabakia hauteskondeen atarikoan hartu dutela eta zer pentsatua ematen du, baina aldi berean, maila honetako akordioetara heldzeko heldutasuna dutela azaltzen badute, pentsatzekoa da gauza bera gerta daitekeela abertzaleen artean ere.

Arrasaten "greba batzordea" eratu da eta hainbat ekitaldi antolatu ditu 27ra bitartean. Guztietarako dei irekia egin du. Euskal Presoek Euskal Herrian egon behar dutelako!

Marijo Deogracias



**"Bizitzarantz bidaia"**

\* Eva Egizabal

Filme baten izenburu gisa ere ez legoke gaizki, pentsa genezake. Eta polita izango da, batez ere amaiera polita badu.

Gizakien Lurrak (G.L.) azken hiru urte hauetan Euskadin eskuartean duen programaren izenburua da "Bizitzarantz bidaia" eta ume gaixoen heriotza seguruari alternatiba bideragarria eskaintzea da helburua.

G.L. ekintzan murgildutako Gobernu Kanpoko Erakunde bat da eta osasun babesik gabeko umeen egoerari erantzun nahi dio, politika, arraza edo konfesio mailako bereizkeriarik gabe. Hainbat programa zehatz landu da, espetxeetan bizi diren haurrak, haurren prostituzioa, heziketa, oinarriko osasuna eta antzeko gaiekin. Filme berezi honetan umeak dira protagonista. Ume horiek jaiotzetiko malformazioak edo gaixotasun sendaezina izaten dituzte eta beren herrialdeetan eta ingurukoetan ez dute sendabiderik. Hirugarren mun-

duko herrialde azpigaratuetan bizi diren ume hauei ez zaie falta euren familiaren maitasuna eta ez dira, beraz, ume abandonatuak, baina pairatzen dituzten osasun arazoak gaingintzeko behar adinako bitartekoak falta zaizkie, zoritxarrez.

Haria oso erraza da kontatzen, baina zaila filmea egitea. Umea aurkitutakoan, mediku txostena eta ingurune sozialari buruzkoa egiten da eta Gizakien Lurrak ordezkarietara bidaltzen da. Bien bitartean burukrazia lanak egiten dira, jatorrizko herrialdean (ezin dugu ahaztu herrialde horietan edozein

agiri lortzea izugarri konplikatu izaten dela) eta Euskadin: mediku baimena, gaztetxoak ekartzeko adostasuna, etab. Ume horretan antolatzen da hegaldia.

Azkenik, produktoreak falta zaizkigu eta horiek ere ez dute gainerako guztiak baino garrantzi gutxiago: filme honetan, umea etxea hartzen duten familiak dira. Umea hemen dagoen bitartean zaintzeaz arduratuko dira, egonaldia ahalik eta atseginena izan dadin eta sendatzeko behar duen konpainia eta maitasuna emanaz.

Umea bere herrira itzultzen denean, Gizakien Lurrak maiztasunez jasotzen du haren berri, gure ekintzaren balioa berresteko.

Programa honen bitartez urtean gutxi gorabehera 250 haurri egiten zaizkie ebakuntzak. Orain arte lortutako emaitzen arrakastagatik, gero eta gehiago sinesten dugu lan honekin jarraitu beharra dagoela eta indartsuago jarraitzen dugu bizitzarako bidai honetan lagunduko diguten adiskide boluntario gehiago bidaltzen.

**“ Programa honen bitartez urtean gutxi gorabehera 250 haurri egiten zaizkie ebakuntzak ”**

\* Gizakien Lurraren ordezkaria Arrasaten



**Pando**  
ERROTULOAK  
Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabilioia)  
Tel. / Faxa: 943 79 79 70

**CE** **ERRASTI KRISTALDEGIA**  
**Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak osagaiak**  
Olarte kalea, 47 behe Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25




Eperako  
Aurrezkia


EUSKADIKO KUTXA



## Interes bikoitza eskaintzen dugu.



Horregatik, interesak bikoizteko 10etik aukera bat duzu urtarrilaren 15etik otsailaren 18ra bitartean dauden 5 asteetan. Egizu eperako ezarpen bat eta ezarpenaren zenbatekoaren azken zifra eta ezarpena egin duzun asteko ostiralean ONCeren kupoian saritzen den zenbakiaren azken zifra bera bada, interes bikoitza irabaziko duzu 6 hiletan zehar.

  
CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun  
zuzena

## OÑATI


### 1 Benito Lertxundiren kontzertua

Benito Lertxundi abeslari oriotarrak emanaldia eskainiko du gaur, Oñatiko Zubikoa polikiroldegian. 22:30etan hasiko da kontzertua. Aldez aurreko salmentan 1.200 pezetako prezioa dute, sarrerek eta 1.500 pezetan lehiatilan erosiz gero. Gazte txartelarekin, ordea, 1.000 pezetan eskuratu ahal izango dituzue. Gaurkoa da aspaldian Benitok eskaintzen duen lehen kontzertua. Bere jarraitzaileek, beraz, horra Benitoren abestiez gozatzeko aukera paregabea.

## ARETXABALETA

### 2 Haurtzaindegi berria

Arizmendi Kooperatiba elkarteak haurtzaindegi berria irekiko du Aretxabaletan, Udalarekin eta Gizabidearekin hitzarmen bat sinatu ondoren. Pausokak kudeatuko du ikastetxe berria. Horrez gain, hezkuntza arloko kooperatibak bi informazio bulego irekiko ditu Arrasatekoaz gain, bata Aretxabaletan eta bestea Eskoriatzan. Aretxabaletakoa Larrin plazan kokatuko da.



## BERGARA

### 3 Uberako jaiak

Asteburu honetan ospatzen dira Bergarako Uberan San Paulo jaiak. Bihar, arratsaldeko 16:00etan, mus txapelketa izango da, Uberako elkartean. Izenematea 2.000 peze-

ta ordaindu beharko du bikote bakoitzak. Sarietarako dagokienez, txapelduneri trofeo bat eta batu denaren erdia eman go zaie; azpitxapelduneri, trofeoa eta bildutakoaren %35. Etzi jarraituko du festak, goizeko 11:30etan izango diren bi pilota partidekin.

## ELGETA

### 4 Musika gaztetxean

Elgetako Gaztetxeak datozen egunotan egingo dituen ekin-tzen egitaraua aurkeztu du. Musika atsegin dutenek bihar izango dute aukera, "Bide Ertzean" musika taldearen ekitaldia egongo baita. Hurrengo asteari begira, bi eratako saioak antolatuko dituzte gaztetxeak. Alde batetik, hurrengo zapatuan Makel magoaren ikuskizuna izango da, eta domekan, zaborrak biltzeko mendi irteera, goizeko 9:30etan.

## ANTZUOLA

### 5 Alkatea gose greban

Mireia Unamunok, Antzuolako alkateak, euskal presoen eskubideak aldarrikatzeko 30 bat alkatek Altsasun egin duten gose greban parte hartu du. Joan den asteko astelehenetik larunbatera iraun zuen protesta ekitaldiak. Altsasuko Udaltaldean eman zuten astea. Larunbatean Bilbora abiatu ziren, presoek Euskal Herriratzeara eskatzeko egin zen kale agerraldian parte hartuz. Mondragoeko alkatea ere bietan izan zen.

**TAKOLO AUTOAK**

Araba etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia  
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE



## Opel Astra diesel berria

2.0 DTI 16V. 100 zaldi



# Iturbide Egoitzako bizimodua ezagutzen

Iturbide Egoitzari buruz makina bat aldiz hitz egin izan dugu gure aldizkari honetan. Baina beti ekitaldi puntualak direla eta gerturatu izan gara Egoitzara. Oraingo honetan, egoitzari eta hango bizilagunei buruz gehiago jakin eta nola bizi diren ezagutuko dugu.

Hasteko, esan beharra dago hiru urtetik hona majo aldatu direla gauzak Iturbide Egoitzan. Orduan beste planteamentu bat egin eta hori garatzeko lanean hasi ziren. Iturbideko bizilagunen arteko harremanak sendotzea zen planteamendu berriaren helburua eta kanpoko bisitekin gauza bera egitea. Bestalde, Mondragoen egoitzari buruz dagoen irudia ere aldarazi egin nahi zen. Hau da, herriaren erdi-erdian egonda ere, herritar askorentzat Iturbide Egoitza aparteko mundu bat da, irla antzeko bat eta apurtu egin nahi zen irudi hori.

Orduantxe hasi zen Nekane Exposito suspertzalea Iturbide Egoitzan lanean. Berak antolatzen du egoitzako eguneroko bizimodua. Nekane, Untza enpresako Agurtzane Garai monitorearen laguntza izaten du guztia antolatu eta behar bezala betetzeko.

## GIMNASIA UGARI

Goizeko 9:00etan hasten dira egoiliarrentzako ekintzak Iturbiden. Ordu horretarako denak jaiki eta arrosatu duenak, psikomotrizitatea lantzeko gimnasia egiteko aukera izaten du. Jokoak egiten dituzte eta oro har, taldean elkarrekin egotea da helburua, harremanak sendotze-



Goizean goiz gimnasia egiten dute Iturbide Egoitzako bizilagunek.

ko. Talde horretan, bere kabuz baliatzeko gauza direnak eta nola hala baliatzen diren bizilagunak aritzen dira.

Ondoren, 10:00etatik 11:00etara, eskulanak lantzen dira. Bakarrik baliatu ezin direnentzat daude bereziki zuzenduta. Egoitzarako apaingarriak egiten dira talde honetan, margolanak, mosaikoak...

## MEZA

Egunero izaten dute egoiliarrek mezetara joateko aukera. Goizeko 11:00etarako Udalako Tomas Iturbe

apaiza eguneroko meza emateko prest izaten da egoitzako kaperatxoan. Asko maitate omen dute, gainera, egoitzako bizilagunek mezetara joatea.

Ordu erdi beranduago, bigarren solairuko egongelan egunkaria irakurtzen die Nekane hara gerturatzen direnei. 30 bat lagun biltzen dira bere inguruan. Ordurako, senitarteak eta egoitzako bizilagunen adiskideak ere hantxe izaten dira.

12:00etan bukatzen da irakurketa. Orduan, lehe-

nengo txanda bazkaltzera joaten da. Zainketa gehien behar izaten dutenak dira hauek. Ordu erdi beranduago bigarren taldeak bazkaltzen du.

## ARRATSALDEA

Une lasaiagoa izaten da arratsaldea Iturbide Egoitzako bizilagunentzat.

Agurtzane Garai monitorearen aritzen da arratsaldean. 15:00etan hasita 19:00ak arte, gimnasia egiten dute monitoreen laguntzaz. Ordu bakoitza egoiliarren beharretara egokitzen da. Lehenengo taldean, esaterako, bakarrik baliatu ezin daitezkeenak ibiltzen dira. Bigarrenean, berriz, gurgildun aukietan daudenak eta hirugarrenean, erraz baliatzen direnak. Azken talde honetan, eskulanak, bolotan, kartetan eta baita bingoan ere. Asteko egun bakoitzean gauza bat egiten dute.

Horrez gain, asteazkeneko egoitzako abesbatzaren txanda izaten da. Helburu zehatzak izaten ditu abesbatzak. Orain, esaterako, Santa Agata egunerako entseguak egiten ari dira.

## BEHARRAK

Ez dute, beraz, gauza gutxi izaten, egoitzako bizilagunek. Hala eta guztiz ere, behar ugari dituztela nabarmendu digu Nekane Expositok. Horietatik nagusiena, egongela edo areto handi baten beharra da. Ekitaldi onak edo jende asko biltzen dituen egiteko orduan, txiki geratzen zaizkie egoitzak dituen aretoak. Era berean, gimnasia egiteko aparailurik ere ez dute.

**Iturbideko bizilagunen arteko harremanak sendotu nahi dira**

## Datu orokorrak

- 98 bizilagun: 60 emakumezko eta 38 gizonetzko
- 4 solairu
- 37 logela bikoitz
- 24 bakarkakoak
- 2 gela larrialdietarako
- 39 langile inguru txandaka lanean

astea bi hitzetan

■ **Gipuzkoa Zein Berdea**

Izen honekin aurkeztu zuten ostiralean Gipuzkoa barnealdeko bost eskualdek sortu duten turismo proiektua. Urola garaiak eta erdiak, Debagoienak, Tolosaldeak eta Goierrik parte hartzen dute proiektu horretan.

Orain arte eskualdeok eskaintza bana egiten zuten, baina Ana Heriz Debagoieneko turismo arduradunaren, esanetan, bakoitza ezaugarazteko arazo handiak zituzten eskualdeek. Konponbide moduan erabaki zuten bost eskualdeek euren indarrak batzea eta horrela jaio da "Gipuzkoa Zein Berdea" izeneko proiektua.

Lau ardatzen inguruan gauzatuko da turismo eskaintza: natura, kultura, gastronomia eta jaiak. Lehen pauso moduan, liburuxka batzuk kaleratuko dituzte, hainbat ibilbide turistiko proposatuz.

Ertaroari buruzko ibilbidean dago Mondragoe. Ertaroko hainbat monumentu ikusgarri azpimarratzen dira, Portaloia edo harresiko hiru ateak, besteak beste. Horrez gain, Santamasetako edo Maritxu Kajoi eguneko giroa dastatzea gomendatzen da.

Udal pilotalekuko tabernaren ardura eskatzeko epea pasa den asteazkenean amaitu zen. Hiru eskaera izan dira guztira. AUKEAK urtarilaren 3 In emango du jakitera taberna nork gestionatuko duen. Ustiapena lortzen duenak, taberna gestionatzeaz gain, pilotalekua ireki eta ixteaz ere arduratu behar du. Eta noski, inguru guztia garbi-garbi izateaz.

■ **Uarkapeko taberna**

Udal pilotalekuko tabernaren ardura eskatzeko epea pasa den asteazkenean amaitu zen. Hiru eskaera izan dira guztira. AUKEAK urtarilaren 3 In emango du jakitera taberna nork gestionatuko duen. Ustiapena lortzen duenak, taberna gestionatzeaz gain, pilotalekua ireki eta ixteaz ere arduratu behar du. Eta noski, inguru guztia garbi-garbi izateaz.

■ **Deba Ibarreko Euskerie**

Debarroko euskalkiak aztertzen dituen liburu bat plazaratu berri da. "Deba Ibarreko Euskerie" da izenburua eta Koldo Zuazo egilea. Debarroko hizkeren artean dauden berdintasun eta

ezberdintasunak aztertu nahi izan ditu Koldo Zuazok liburu honen bitartez. Euskalki bakoitzak zein arau eta irizpide segitzen dituen aztertzen du. Arau bakoitza zein esparru edo gunetan ematen den ikusi du gero, Debarroko euskara guztiak eremuen arabera sailkatzeko. Ezaugarri morfologiko, fonologiko eta sintaktikoak hartu ditu kontuan horretarako.

Koldo Zuazok hainbat arrasatearren laguntza jaso du liburua idazterakoan: Eneritz Garro, Leire Martinez de Gereñu eta Estepan Plazola aritu dira, besteak beste.

Liburuaren 2.125 ale argitaratu dira, eta horietatik 300 Arrasateko Udalak erosi ditu. Oraindik erabakitzeko dagoen arren, seguraski liburudendetan jarriko da liburua salgai.

Koldo Zuazo eibartarra da eta Euskal Herriko Unibertsitatean dihardu irakasle, Euskal Filologia sailean.

“Produktuak gero eta txikiagoak dira, gero eta teknologia “mikro” gehiago jarri behar zaie eta horri eutsi egin behar diogu. Eta beste zentro batzuekin elkarlanean egingo dugu hori, oso inbertsio handiak dira eta. Elkar osatu beharra daukazu, zentro bakar batekin ezin baitu mikrosistemen diseinu eta fabrikazioak dakartzan etapa guztiak bere gain hartu”.

**CARLOS REDONDO**

Deia  
2000.eko urtarilaren 9an



■ **Amnistia eskaera**

"Euskal Herriak du hitza, euskal presoak Euskal Herri" leloarekin kale agerraldia izan zen ostiralean. Amnistia aldarrikatu zen, presoek Euskal Herriko bake prozesuan parte hartu ahal izateko.

Seber Altube plazatik irten zen 19:00ak pasatxo zirenean eta herriko kaleetan zehar ibili ondoren, Herriko Plazara gerturatu ziren agerraldian bildu zirenak. Han, hamabostean behin Batera plataformak egiten duen kale bilkurarekin bat egin zuten.

**OSORIK  
PUB**  
Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**“PAL”**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria  
Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

**UGARTE**  
Industria  
hornidurak  
Arrasate pasealekua  
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00  
Faxa: 943-793412

**URRATS**  
AHOLKULARITZA  
GARIBAI, 3  
Tel.: 943 79 87 74  
ARRASATE

# Zerrajerako urbanizazioa martxa onean

Bi urte eta erdi inguruko epea ezarri du udalak Zerrajerako etxeen proiektuaren lehenengo zatia bukatzeko.

Burokraziaren azken ozto-poak gainditu ondoren, uda inguruan hasiko dira Zerrajerako bazterrak itxuraldatzeko lanak. Izan ere, dagoeneko Foru Aldundiak onartu du gune horretarako Egitasmo Berezia.

San Andreseko Maiatzaren Bata plazaren inguruan hasiko dira lanak, Araba Etorbidean. Beste biribil bat egiteko asmoa dago han. Modu honetan, Zerrajeran egingo den gune berria Araba Etorbidearekin lotuta geratuko da. Gogoratu Zerrajerako gune horretan 220 etxebizitza berri eraikitzeko asmoa dagoela.

## ERREPIDE BERRIA

Biribilaren ondorioz, San Josepe zubia bota egingo dute, orain dagoen lekua baino apurtxo bat atzerago zubi handiago bat egiteko.

Bestalde, San Josepe inguru horretatik hasita Eskualdeko Ospitaleraino beste errepide bat egitea ere pentsatu da. Errepidea mendi kontran egingo da, Zerrajeraren atzeko aldean. Errepidearekin batera, bizikletentzako bidegorria ere egingo da.

Errepide berria norabide bikoitzekoa izango da. Era berean, etxebizitza berrien eta Deba Ibaiaren artean, oinezkoentzako boulevard edo pase-



Asteartean hasi ziren eraikin zatia botatzen.

abide antzeko bat ere egingo da. San Josepen hasi eta Zerrajerako erlojuraino.

Errepidea egiteaz gain, Nafarroa Etorbidetik pasatzen den errepide zatiak ere izango du aldaketarik. Orain norabide bakarrekoa dena, lanak egin ondoren norabide bikoitzekoa izango da. Beraz, dezente zabalduko da errepide zati hori.

## OINEZKOENTZAKO PASABIDEAK

Inguru horretatik alden du barik, Zerrajeran egingo diren 220 etxebizitza berrietara joateko Deba Ibaia zeharkatuko duen oinezkoentzako zubia eraikiko da. Gauza bera egingo da apurtxo bat aurrerago. Saiolanetik eta orain Zerrajerako eraikin zaharra hasten den tokian, beste pasabide bat egingo da, oinezkoentzat.

Zerrajerako urbanizazio

proiektuaren lehen zatiaren barruan, Deba Ibaia berbideratzeko asmoa ere badago. Oraingo bide okerra zuzendu egin nahi da horrela.

Horrez gain, Deba Ibaiari bi maila egingo zaizkio sakonean. Modu honetan, erreka ur maila normala denean, ibaiaren bi alboetan bi metro eta erdiko gunea libre geratuko da, eguzkia hartu, paseatu eta antzekoak egiteko. Aldiz, erreka mailak gora eginez gero, lehenengo maila zeharo estali eta ura bigarren mailaraino helduko litzateke, baina, bere bidetik irteteko arrisku barik.

## BIGARREN ZATIA

Urbanizazio lanen bigarren zatia, Saiolanen edo Zerrajerako erlojuan hasi eta Eskualdeko Ospitalerainokoa, datorren urtean hastekoa da. Hala ere, atal horri dagokionez, oraindik badaude zehaztu beharrekoak.

Gune horretaz zehatz-mehatz esan daitekeena, babes ofizialeko 92 etxebizitza egingo direla. Gainera, hiltegia zegoen tokian beste biribil bat egingo da. Trafikoa bideratzeaz gain, biribilak zubi lana ere egingo du, Deba Ibaiaren gainean eraikiko baita.

Eskualdeko Ospitalera gerturatu ahala, inguru horretan, babes ofizialeko etxebizitzetan ondoan, zerbitzu gune bat eraikitzea ere pentsatu da. Gune hori bulegoak, parke teknologikoak eta mota honetako zerbitzuak eraikitzeko erabiliko da.

Horrez gain, inguruko tailerrak lekuz aldatuko dira. Markulete aldean kokatzeko asmoa dago, gunea urbanizatu ahal izateko.

Lehenengo zein bigarren zatiko lanak egiteko 603.284.736 pezeta aurreikusitu ditu udalak.

## Toki Argiko taberna eskatzeko epea zabalik


Santamaina auzoko erretiratuen Toki Argi etxeko taberna aretoa ustiatzeko baldintzak plazaratu ditu udalak.

Baldintzek ezartzen dutenez, besteak beste, kontuan hartuko da taberna ustiatzeko eskaera egiten duen pertsonak era horretako zerbitzuetan duen esperientzia, euskara jakitea eta

Mondragoen bizi izatea. Lan egoerari eta familiako zama-ri ere begiratu zaio.

Tabernaren adjudikazioa edo kontzesioa urtebeterako egingo da, baina beste bost urtez luzatu ahal izango da.

Interesatuta zaudetenok, baldintza orriak udaletxeko Erregistro Orokorrean eskatu ahal izango dituzue.



## Harrobiari esplikazio eske

Pasa den urtarrilaren 3an San Josepen leherketa bat egin zen; harriek uste baino urrutirago ihes egin eta Fagor Arrasate eta Fagor Automation kolpatu zituzten. Orain, gertatutakoari buruzko informazioa eskatu dio Arrasateko Udalak San Josepe harrobiari. Egun hartan Fagorren lanean ari ziren langileek sekulako sustoa hartzeaz gain, harriek kalteak eragin zituzten.

Notarioaren aurrean jasotako informazioaren arabera, eraikinaren aurrealdeko 30 kristal apurtu ziren, hainbat ate kolpatu, teilatuak zulatu, metalzko hiru plaka puskatu eta aparkatuta zeuden autoek kal-



Kalteak jasan zituen Fagor Arrasateko ateetako bat.

te handiak izan zituzten.

Mota honetako gertaerak saihesteko, hurrengo batean behar bezalako neurriak har ditzala eskatu dio udalak harro-

biari. Halaxe erabaki du Gobernu Batzordeak. Gertatutakoaren berri emateko gutun bat ere bidali zion udalak Eusko Jaurlaritzari.

## GI-627 Errepidea konpontzen

Debagoiena zeharkatzen duen errepidea konpontzen segitzen du Foru Aldundiak. Arrasateko saihesbidean ari dira orain lanak egiten, baita Epeletik San Prudentziorainoko errepide zatian ere. Halaxe segituko dute datorren asteeko lehenengo egunetan zehar Eroski pareko biribileraino heldu arte, beraz, arretaz ibili.



## Arizmendi kooperatibaren prentsaurrekoa

Arizmendi kooperatibak prentsaurrekoa eskaini zuen astearte eguerdian, Gizabidea fundazioak Aretxabale-tako Larrin plazan duen egoitzan. Felix Ormaetxea Arizmendiko zuzendari orokorra eta Jose Ramon Zubizarreta komunikazio ardura-duna izan ziren hizlari eta hainbat gai landu zuten.

Besteak beste, Arizmendi kooperatibak ireki dituen bulego informatibo-

ez hitz egin zuten. Hezkuntza ereduaren aukeraketa egiterakoan gurasoei aholkularitza eskaintzeko helburuarekin ireki ditu Arizmendik bulegoak, eta arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak arte izango dira zabalik.

Arrasateko bulegoa Frantziskotarren lokalean ireki dute, eta 636 62 14 13 da bertako telefonoa. Aretxabale-tako Gizabidea fun-

dazioaren egoitzan dago, 943 79 79 22 telefonoarekin. Eskoriatzakoa, berriz, Arana ikastolan, eta 71 44 86 du telefonoa.

Horrez gain, Arizmendi kooperatibak orain arte abian jarri dituen egitasmoak ere izan zituzten hizpide.

Arizmendi kooperatibaren barruan lau hezkuntza zentro daude: San Frantzisko Xabier, San Viator, Almen eta Umezaintza.

## Greba Orokorra prestatzen

Urtarrilaren 27rako EHK deitu duen greba orokorra bultzatzeko, Arrasaten "Greba Batzorde" bat eratu berri da. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte, gaur hasi eta greba egunera arte.

Hasteko, asteartero Seber Altuben egiten den presoan aldeko kontzentrazioa hemendik eta urtarrilaren 27a arte greba orokorrari begira egingo da.

Gaur, iluntzeko 19:00etan egingo den kale agerraldia ere Greba Batzordeak deituta da. "Euskal Herriak du hitza eta erabakia. Euskal Presoak Euskal Herrira", horixe izango du leloa. Kale agerraldiaren ondoren, eta Jarrai gazte erakundeak deituta, itxialdia izango da udaletxeko osoko bilkura aretoan larunbat goizeko 10:00ak arte. Era berean, larunbatean bertan Iruñean egingo den kale agerraldira joateko deia ere egin du Greba Batzordeak. Autobuserako sarrerak Irati tabernan daude salgai.

## DEIALDI IREKIA

Bestalde, datorren astelehenan, urtarrilaren 24an, berriz ere bilera egingo du Greba Batzordeak Arrano elkarteran. Arratsaldeko 18:00etan izango da eta 19:30etan, berriz, batzar irekia egingo dute udaletxeko osoko bilkura aretoan, euskal presoak Euskal Herrira aldarrikapenarekin lanean segitzeko.

Azkenik, greba orokorraren bezperan, beste kale agerraldi bat egingo da. Agerraldia Seber Altubetik aterako da arratsaldeko 19:00etan eta gaueko 22:00etan, berriz, greba bultzatzeko kanpaina, burrundara batekin amaituko da.

# Odol bankuak odol beharreen daude

Arabako odol bankuko arduradunak, Mondragoeko anbulatorioan izan dira aste honetako lehenengo hiru egunetan odola batzen. Gauza bera egingo dute datorren asteko astelehenean, asteartean eta asteazkenean ere. Odol emaillek anbulatorioko lehenengo pisurara jo beharko dute arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara, urtarrilaren 24, 25 eta 26an.

Sei hilabetetik behin egingen duten odol bilketa aurten go lehenengo bilketa hilabetez aurreratu behar izan dute Osakidetzako arduradunek.

Arabako odol bankuko arduradunek adierazitakoaren arabera, Gabonetako oporraldian istripu gehiago egoten dira batetik. Bestetik, kirola eta asko egiten da hila-beteotan. Horrez gain, jasaten ari garen gripe izurriteak zail-



16:00-20:00 izango da odola emateko ordutegia anbulategian.

du egin du odola biltzea.

Arrazoi horientatik, odol bankuetan odol gehiagoren beharra sortu da eta horrexegatik aurreratu dute hila-betez ohiko odol bilketa.

Otsailean zehar ere etorriko dira.

Iazko irailean 317 lagunek eman zuten odola. Hori-tatik 18 lagun emaille berriak izan ziren.

## Ekologistak martxan

Urtarrilean zehar, Mondragoeko talde ekologista gehienetako ordezkariak Monterronen bilduko dira asteartero, arratsaldeko 19:30etatik aurrera. Helburua, Arrasate eta inguruetan egingen diren edo egingo diren proiektu erraldoiak aztertzea eta lantzea da. Martxan dauden lanei jarraipena egiteaz gain, lan hauen aurka zer egin daitekeen ere aztertuko da.

Mondragoeko harrobiak, Elgeako zentral eolikoa eta Eibar-Gasteiz autopista dira aztertzen ari diren gaietako batzuk. Dagoeneko eginga dute bigarren bilera. Talde ekologiketik gai hauekiko kezka duten herritar guztiei bilera hauetan parte hartzeko gonbitea ere egingo diete.

## Hemen dira berriz ere MultiOpticas Multifertas Orain familia osoarentzat.

**Multiofertas**  
**MULTIOPTICAS**



Bonardi bilduma  
Denontzat

Erref: B0003  
3.800 pta.n  
22,84 €



Erref: GTV150  
Giulio Tabacchi *betaurrekoak* *Armañoia + Kristalak\**  
Gazteentzat 13.900 pta.tik aurrera  
83,54 €



Betaurrekoak

Erref: B0006  
Armañoia + Kristalak\*  
60 urtetik gorakoentzat 8.900 pta.tik aurrera  
53,49 €

**EDOZEIN DISTANTZIARA ONDO IKUSTEKO**

*Lente Progresiboak*

Gurasoentzat 19.500 pta.tik aurrera  
117,20 €

\*Eskaintza honek lente zurientzat balio du (+/-4ko ESF. +/- 2ko ZIL.)

**MULTIOPTICAS**  
**LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16 - BERGARA  
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE  
J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA






## BARREBUSA ARRASATERA


Agindu bezala, etorri zen Arrasatera ETBren Barrebusa. Amaia Antzokia izan zen bere geltokia. Eta ez ziren lagun faltan geratu, jendez gainezka egon baitzen aretoa astelehen eta asteartean. Merezi zuen harrera ona eman zion Barrebusari Mondragoek. Eta jakina, gaztetxoek izan ziren bertan nagusi. Ondo gozatu zituzten Barrebusaren bi saioak. Ez zen gutxiagorako, han izan baitziren

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazokak, Txan mago handia, bere triki-mailuekin eta Ixiar Oreja, besteak beste. Nola ez, Arrasaten izan zirela egiaztatzen duen argazki ofiziala ere atera zuten elkarrekin. Eta zuzendari lanetan, beste aurpegi ezagun bat: Kike Amunarriz. Labur esanda, arrakasta borobila. Zorionak Barrebusari eta Arrasateri!





# 10



## 10 urte, 10 ordutan

### TELEMARATOA

Otsailaren 13an, igandez

## Zer gogoratu nahi duzu?

---

Saioa: .....

Aurkezlea: .....

Unea: .....

Gonbidatua: .....

Bidali zure erantzuna: Otolara Lizentziatua, 31 • 20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 23 93 / 943 71 23 95 • E-maila: atb@euskalnet.net





## ASIER ARANGUREN ARKON

Asier Aranguren ARKOra bueltatu zen, garai batean bere lantoki izandakora, hain zuzen. Doktoradutza tesia orain dela gutxi egin du Asierrek, herri

komunikabideen inguruan. ETBko "Hitzaro"k eta "Lengua Viva"k tarte bana eskeiniko diote tesiari, eta horiek grabatzera etorri ziren Arrasatera.



## AL-ANDALUSEN EMAITZA POSITIBOAK

Al-Andalusek 1999ko balantzea egiteko batzar orokorra egin zuen. Oso pozik daude, bai egindako kultura ekintzekin, bai arlo ekonomikoko emaitzekin. Aurtengo egitaraua ere aurkeztu zuten. Gainera, aurtan du elkarte honek bere 10. urteurrena, eta behar bezala ospatuko dute.



## GOJENOLA ERAKUSGAI

Honelako lanak jarri ditu ikusgai  
Koldo Gojenola margolariak  
Toki Eder kafetegian.  
Eibartarra da Koldo eta Arrasateraino ekarri  
ditu bere margoak. Lanak ederrak dira  
benetan eta beste astebetetz ere izango ditu  
erakusgai eta bide batez, kafetegiko hormak  
apaintzen.



# Publikoaren txaltoa, gaito

20 urte dira Enrike eta Esteban Dolara anaiak Arrasateko musika munduan murgildu zirela. Edozein jai edo ospakizun dela, hortxe daude Dolara anaiak euren haizezko musika tresnarekin bazterrak alaitzen.

**B**atzuek "Arrasateko gaiteroak" esaten diete, eta beste batzuek, aldiz, "Arrasateko dultzaineroak". Eurek argi eta garbi azaldu digute: "Gasteiztik Baionara eta Tuteratik Bilbora, gaita esaten zaio. Gipuzkoan bakarrik erabiltzen da dultzaina hitza. Baina gu gaiteroak gara, hori argi dauka-gu." Aztertu ere, aztertu dute

euren kontura gai hori. Eta historia eta hizkuntza arloko arrazoï aurkitu dituzte: "Dultzaina hitza gaztelaniazko mailegua da, Gipuzkoara Gaztelako musikariak etortzen zirenekoa, haiek *dultzaineros* deitzen zirelako", azaldu digute Dolaratarrek.

## KUNTA-KINTERENA

Gipuzkoarrok bereziak gara kontu honetan, beraz. Baina ez honetan bakarrik. Izan ere, Euskal Herrian gaitarekiko zaletasun handia badago ere, Gipuzkoan, eta bereziki bertako zenbait tokitan -Arrasate kasu- gaita jai eginkizunetan danborra edo txistuarekin batera entzuteak oraindik

harridura sortzen du. Eurek ere onartzen dute hau: "Beste tresna batzuk ikusita, txalaparta edo txistua, adibidez, inork ez du jatorria zalantzan jartzen. Gaitari dagokionez, ordea, bai. Eta hau bidegabekeria dela uste dugu." Honi buruz ere badute zer esanik Dolaratarrek: "Euskal Herrian bertakoa den gauza bakarra euskara da. Beste guztiak unibertsalak dira. Beraz, txistua edo txalaparta bezain euskalduna da gaita. Kunta-Kintek ere jotzen zuen txalaparta; Grezian ere jotzen dute txistua. Ezberdintasuna herri bakoitzak bere izaeraren arabera jotzeko duen era da. Gaitarekin ere gauza bera gertatu da. Baina jatorriari buruzko ardura Gipuzkoan, eta zehazki Arrasate aldean, besterik ez dugu sumatu".

Enrikek eta Estebanek, ordea, jatorri kontu hauek alde batera utziak dituzte aspalditik, 1979an tresna hau ezagutu zutenetik. Txirripaz sortu zitzaieen grina: Esteban Lizarran egon zen danborra jotzen, Iruñeako gaiteroak ezagutu zituen... eta hantxe kutsatu zioten nafarrek gaitarekiko euren izugarritzko zaletasuna. Estebanek Enrike kutsatu zuen... eta hortxe dabilta. Dolaratarrek gogoz defendatzen dute gaitaren nortasuna. Baina eztabaida hauek alde batera utzi eta musikarekin gozatzea da eurentzat garrantzitsuena.

## TRADIZIOA

Eta gozatzen eta besteei gozazten daramate 20 urte Dolaratarrek. Arrasaten zaletasuna badagoela diote, eta nahi-



Diskoan elkarrekin jo dute: Esteban Dolara...



Dolara anaiak Jose Ramon Perez danborjolearekin.

ko pozik daude hemengo jendearen erantzunarekin. Hala ere, beste herrien aldean askoz gutxiago dago. "Nafarroa osoan izugarritzko zaletasuna dago. San Ferminetan jotzea betebeharrak bihurtu da guretzat. Eta Gipuzkoan, Eibar edo Deba aipa genitzake. Herri horietan benetako arazoak izaten ditugu, jendeak ez digu-

**Publiko bezala, primerakoa da Arrasateko jendea: esijentea, baina baita esker onekoa ere.**

# roen laguntza



lar Xintxurreta danborjoleak, Enrike Dolarak, Eduardo Abarrategik eta JR Vitoriak.

lako ekitaldia amaitzen uzten”, diote Arrasateko gaiteroek.

Zertan datza, bada, Arrasate eta beste herrien arteko

ezberdintasuna? Gaiteroen ustetan, “tradizio kontu hutsa da. Han eutsi egin diote gaitari; Arrasaten eta Gipuzkoa-



San Joanetan egin ohi duten kalejira.

ko beste hainbat tokitan, ordea, ez. Eibarren edo Deban, esaterako, gaitaren doinua biziki maite dute eta izugarritzko giroa izaten da. Arrasaten ere giro polita sortzen da, baina hemen momentu puntaletako kontua izaten da”.

## HERRIA, MUSIKAN ADITUA

Hala ere, euren jaioterrian publiko berezia eta maitea dute Dolara anaiek. Eta mondragoetarren ezaugarri esanguratsu bat azpimarratzen dute gaiteroek: “Musikan oso herri aditua da Arrasate. Kanpoko musikariek ere sarritan esan digute hori. Publiko bezala, primerakoa da Arrasateko jendea: esijentea, baina baita eskeronekoa ere. Dantzan egitea baino entzutea dute nahiago arrasatearrek, eta berehala jakiten dute musika kalitatezkoa den ala ez”.

Eta esker on horrek lagun du die Enrike eta Estebani lan horretan segitzen, estuasunei aurre eginda. Izan ere, bada musikari esker bizi den gaiterorik, baina salbuespena da hori. Eurek tailerrean egiten dute lan, eta gaita aisialdiko ekintza moduan daukate. Gogorra da hori guztia batera eta ondo egitea: astia falta dela, entsaiatu egin behar dela... nekez heltzen dira gauza guztietara. Baina, eurek dioten bezala, publikoarengatik segitzen dute hor. “Gaita jotzera irteten dugun bakoitzean, publikoaren babesa eta berotasuna sentitzen dugu. Jendeak laguntzen digulako jarraitzen dugu Mondragoen jotzen. Horrek ez du esan gura sekulako arrakasta dugunik, baina beti sortzen da jarrai-

tzaile taldetxo bat, eta horrek indarra ematen digu”, aitortzen dute Dolara anaiek.

## JARRAIPENAREN BILA

Arrasatear gehienek herriko kalejiraren parte bezala ikusi izan dituzte Dolaratarak, San Joanak eta era guztietako jaiak euren musikarekin girotzen dituztelako. Baina Euskal Herri osoan eta kanpoan ere ibili dira, kontzertuetan eta lehiaketetan: Madrilen, Burgozen, Frantzian, Italian... Hauetako gazi-gozaok ere gogoan dituzte. Euskal Herri- tik kanpo, Katalunian izan dute harrera onena. Lazkao Txiki, Tierno Galvan edo Jordi Pujol ezagutu dituzte, besteak beste, lan horri esker.

Etorkizunari begira, gaitaren jarraipena ziurtatu gura dute Arrasaten. Horretarako irakasle ere ibili izan dira. Ahalegin honek eman du fruiturik: Eduardo Abarrategi mondragoetarra, adibidez, euren ikasle izandakoa da. Hala ere, alor honetan gauzak ez daude nahi luketen bezala: “Badago interesa duen jendea. Baina lokalik ez daukagu, eta lokalik gabe ez dago eskolak ematerik. Hori da arazo nagusia”.

Oraingoz, hain luzaroko ibilbidea borobiltzeko, Julian Romanoren omenezko disko batean jo dute Dolara anaiek. Euren kasa beste bat egitea ere ez lukete gaizki ikusiko. Eta izango dute, ziur, horretarako parada. Beste hogeitaz urtez gaita jotzen jarraitzeko asmoa baitute Estebanek eta Enrikek. ■

Leire Kortabarria

## **AINHOA GUENAGA** (ARRASATEKO UDALEKO IDAZKARIA)

# *“Balantze positiboa egin*

**Ainhoa Guenaga Munduate, Arrasateko Udaleko Idazkaria, 25 urteko gazte irundarra da. Zuzenbide ekonomiko juridikoko lizentziatura Deustun lortu eta berehala, Mondragoen hasi zen lanean. Litekeena da bera izatea Euskal Herriko udal Idazkaririk gazteena. Ez da lan makala berak egiten duena, herriko udaleko jarduna legearen arabera egiten dela zaintzea baitu ogibide. Gehiago jakin nahi eta, Idazkari gazte honekin solasaldian izan gara.**

**— Gazterik hasi zinen ardura handiko lan honetan; ez zintuen lanak beldurtu?**

— Karrera bukatu eta berehala oposizioak prestatzen hasi nintzen, Administrazio Publikoan lanean hasteko. Orduan Arrasateko Idazkari lanposturako deialdia ikusi nuen eta aurkeztea erabaki

nuen, saiatu beharra nuen, behintzat.

Egia esan, ustekabea izan zen lanpostua ateratzea, baina... Atera egin nuen eta orduetik hemen nago.

**— Arrasateko Udalean izandako liskarrek ez zintuzten kokildu?**

— Komunikabideen bitartez ezagutzen nituen Arrasaten zeuden liskarrak. Baina egia esan, etorri nintzenean horrek ez ninduen bereziki kezkatu. Gehiago kezkatzen ninduen hau nire lehenengo lan esperientzia izateak; teorian gauza asko jakin arren, praktikan ez da horrela izaten, ez nuen inolako esperientziarik... Hori zen nire kezka nagusia.


Ez nekien zer aurkituko nuen Arrasateko udalean. Edozer izanda ere, berria zen eta ezezaguna izate horrek errespetua sortzen zidan.

**— Arrasateko Udaleko Idazkari izatea, tranpolin antzeko zerbait da zuretzat? Gero, nora?**

— Ez dut horretan pentsatu. Esperientziarik gabe hasi nintzen lanean, baina baikor, nire buruan konfiantza jarrita. Banekien ikasketo asko nuela eta

baita egiteko asko ere. Eta horretan nabil.

Arrasateko Udalean gus-tura nago. Esperientzia hartzen nabil, gero eta gehiago ikasten, eta oraingoz, horretan jarraitzeko asmoa dut.



**“Ez da inoiz  
gutziz erlajatzzen,  
ardura handiko lana baita”**

# ingo nuke”

— Urtebete egin duzu dagoeneko, zer iruditzen zaizu zure lana? Zaila da?

— Urtebete egin dut lanean eta balantze bat egin behar izanez gero, oso positiboa dela esango nuke. Oso gustura nago. Zaila, bada, agian bai, baina batez ere ez nuelako lana ezagutzen.

Zenbat eta gehiago eza-gutu, segurtasun handiagoa lortzen da eta lasaiago ibiltzen da. Hala ere, ez da inoiz guztiz lasaitzen, ardura handiko lana baita.

— Orain arteko lanen artean zein izan da zailena?

— Beharbada, hauteskundeak prestatzea. Ez dakit zailena izan dela esatea egokiena den, baina bai gehien kezoa.

Ni sartu eta sei hilabetera izan ziren eta gainera, hiru bozketata batera egin behar ziren. Horietako bat, udalerakoa zen eta horrek zuzenean eragiten du udalaren funtzionamenduan: udal gobernuaren aldaketa, alkatearen aukeraketa...

— Nola gogoratzen duzu zure lehenengo osoko bilkura?

— Oso urduri nengoen. Guztiz berria zen niretzat. Oso-ko bilkura batean inoiz egon barik nengoen, ezta ikusle moduan ere, ezta nire herriko udalean ere.

Lehenengo aldia izateaz gain, gainera, han ez nengoen ikusle moduan. Idazkari lane-tan baizik... Nahiko urduri egon nintzen.

— Lanean hasi baino lehen zer gomendio eman zizun lña-

ki Txintxurretak, aurreko Idazkariak?

— Ez kezkatzeko esan zidan. Denborak lagunduko zidala lanpostua ikasten eta denbora kontua zela.

— Nola ikusten da zure lanpostutik Arrasateko Udala? Zein giro dago?

— Nire ustez, oso giro ona dago. Hala ere, ezin dut konparazio handiegirik egin, hau baita ezagutzen dudana udal bakarra...

— Zure lanpostuak Mondragoera etortzera behartu zaitu; zer moduz Arrasaten, eta arrasatearrek?

— Oso ondo. Egia esan segituan moldatu nintzen hemengo bizimodura. Esan beharra dago, bestalde, ni ohi-tuta nengoela etxetik kanpo bizi izaten. Bilbon bost urte eman nituen ikasten eta horrek asko errazten du etxetik kanpo bizi izatea.

Dena dela, esan bezala, oso gustura nago Arrasaten. Bi lagunekin bizi naiz etxe batean, ondo moldatzen gara, eta nahiz eta lanean ordu asko sartzearen ondorioz asti gehiegirik ez izan, ateratzen garenean gustura ibiltzen gara...

— Gaztea izateak inoiz arazorik eragin dizu lanpostuan?

— Aparteko arazorik ez. Gaztetasunak ekartzen duen arazoa esperientzia falta izaten da eta horixe da nik sumatu dudana arazo bakarra. Esperientzia beti da lagungarri, batez ere ardura handiko lane-tan. ■

## EMAKUMEON TXOKOA

### Etxeko lanak eta ardurak gizonezko eta emakumezkoen artean trukatzeko tailerrak

#### GIZONEZKOENTZAT:

- Sukaldaritza
- Garbitasuna
- Joskintza
- Plantxa
- Etxeko ekologia

#### EMAKUMEZKOENTZAT:

- Elektrizitatea
- Iturgintza
- Brikolajea
- Pintura
- Etxeko ekologia

**Noiz:** Otsailean hasi eta apirilera bitartean.

**Ordutegia:** Arratsaldeko 18:00-tik 20:00-tara.

**Matrikula:** 2.000 pta.

**Izena ematea:** Arrasateko udaleko Emakume Sailean.

### Martxoaren 8ko Arrasateko IV. hormirudi lehiaketa

**Leloa:** “Emakume! Hartu hitza eta erabakia”.

**Saria:** 70.000 pta. (-PFEZ).

**Lana aurkezteko epea:** 2000ko otsailaren 18a.

**Lehiaketaren oinarriak:** Emakume Sailean.

### Emakumeen kontseilua

Emakumeen kontseilua otsailaren 2an, asteazkenez, arratsaldeko 18:30ean, bilduko da udaletxeko hirugarren solairuan, “Martxoaren 8ko” egitaraua adosteko. Interesik eta proposamenik izanez gero, gonbidatuta zaude.

**Zure artelan edo eskulanarekin emakume artista eta artisauen erakusketan parte hartzea nahi izanez gero orain duzu aukera.**

**Argibideak:** Udaleko Emakume Sailean

**Telefonoak:** 943 79 09 00

943 79 41 39



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■

# Merkatariei laguntza eskaintzeko bulegoa

“Euskal Herrian irekitzen diren negozioen erdia baino gehiago bost urte baino lehen ixten dira; %11k ez du urtebete irauten eta %76 hamaikagarren urterako itxi egiten da”. Hori zioen GATC edo Merkataritzarako laguntza teknikorako bulegoaren 1997ko txosten batek. Hori izan zen gainera, zerbitzu hori eskaintzen hasteko arrazoietakoa bat. Arrasaten Debagoieneko bulegoa dago, Lanbide Hastapeneko Eraikinean, Nafarroa etorbidean. Bertako ardura-duna Rakel Gonzalez da eta berak azaldu bezala, “merkatarientzako aholkularitza teknikoa, merkataritzari buruzko informazioa eta merkataritzaren sustapena” eskaintzea ditu lanik nagusienak.

Arrasate, Bergara eta Oñatiko merkatarien elkarteekin



Merkataritzarako laguntza teknikorako bulegoa.

harremana du, baina Debagoieneko merkataritza guztientzako zerbitzua eskaintzen da bertatik. Rakel Gonzalez 1994az geroztik ari da lan horretan. “Negozio bat zabal-tzerakoan beharrezko den aholkularitza” eskaintzen du berak. Merkataritzan zentratu-rik dagoen aholkularitza da, “jendeak gehien galdetzen duena, dirulaguntzak nola jaso dezaketan da, baina negozio

baten bideragarritasun plana nola egiten den, errejimen fiskala zein den eta bestelako gaiak ere argitzen dira bulego honetatik”. Horrez gain, GATCetik Eusko Jaurlaritzak bultzatzen dituen merkatariei zuzendutako kanpainak ere bideratzen dira eta azkenik, “merkataritza elkarteak bultzatzea ere nire lana denez, merkataritza elkarteekin harremanetan egoten naiz”.

Arrasaten 300 saltoki baino gehiago daude. Hauetako asko Ibai Arte elkarte baxkide dira. “Dena dela, gure zerbitzua ez da merkataritza elkarteetako bazkideentzat bakarrik. Astelehenean hasiko den informatika ikastaroan elkarte baxkideek eta bazkide ez direnek eman dute izena”.

## INFORMATIKA IKASTAROA

Hogeituroko ikastaroa antolatuko dute eta hamabi laguneko parte hartuko dute. “Merkataritza batzuk zerrendatik kanpo gelditu dira. Oinarriko ikastaroa izango da eta Bilboko enpresa batek eskainiko du. “Merkataritza elkarteetako araberako antolatzen ditugu saioak. Azken egunotan beherapenen gaineko kontsultak izan ditut batez ere”.

# Alboka ikastaroa



- Irakaslea: Sergio Lekuona
- Egutegia: Urtarrilaren 29tik ekainaren 17ra
- Eguna: Larunbata
- 3 txanda: 10etatik 13etara
- Lekua: Arrasate Musikal
- Matrikula: 3.000 pta  
2.000 pta, ikasle eta langabeentzat.

**IZEN EMATEA:** Gazte bulegoa • Tel.: 943 77 00 65



ARRASATEKO  
UDALA

**Gazteria Saila** ■



# Lehiakortasuna alderatu nahian

Behin baino gehiagotan kontatu dizuegun bezala, Arrasate Kirol Proiektuan ari diren neska-mutikoak kirol sailkapen bereziarekin aritzen dira proiektuan. Arduradunek azpimarratu duten bezala "garrantzitsuena kasu honetan jokatzea da eta modu egokian aritzea. Hau da, lehiakortasuna alde batera laga eta parte hartzea". Hori dela eta, astero argitaratzen dituzten sailkapenak bereziak izaten dira. Izan ere, eskola kiroleko irizpide hezitzaileei jarraituz, proiektuko aurrekirol eta multikirol mailako sailkapenak hiru faktore



hartzen dituzte kontuan puntuak batu aurretik:

• **Emaitza:** Partidak jokatuta ahala, emaitza ere kontuan

izaten dute eta horren puntu bat, bi edo hiru banatzen dituzte emaitzaren arabera.

• **Taldean jarrera:** Talde

bakoitzak hasieratik hiru puntu izaten ditu, baina epaileak puntuak kenduko dizkie jarrera zatar bakoitzeko.

• **Partaidetza:** Talde bakoitzak hiru puntu edukiko ditu hasteko eta falta bakoitzarengatik puntu erdia kentzen da.

Partidatan lortutako emaitza bezain garrantzitsuak da jokatzen erakutsitako jarrera eta taldearen partaidetza. Hori dela eta, azken bi faktore horiek, helburu hezitzailea indartzen dute, jarrerari eta talde zentzuari berebiziko garrantzia emanez.

## Asteburuko hitzorduak Urtarrilak 22, larunbata

### PSIKOMOTRIZITATEA IGERIKETA

Musakolako kiroldegia

**9:45** Aramaio  
Merced B  
SFX (Santa Teresa)  
SFX D

**10:45** Merced A  
SFX C  
SFX A  
Erguin

San Viator A

**11:45** Musakola  
SFX B  
SFX U  
San Viator B  
San Viator C

### INFANTILAK SASKIBALOA

MUTILAK

San Viator

**9:30** Arrasate B-  
Txantxi DBH - 2BBM

**10:30** Arrasate A  
Aozaraza 2

### FUTBOLA NESKAK

Atxabalde

**9:00** La Merced  
Aranzadi B

**MUTILAK** Autobusa  
Musakola

**10:00** La Merced  
Aozaraza

Jpintza

**10:30** Ipintza DBH  
SFX

## Taldez talde

### INFANTILAK • FUTBOLA MUTILAK

Taldea	P	JP	I	B	G
Kurtzebarri	15	6	5	0	1
Almen	14	7	4	2	1
SFX	13	7	4	1	2
Txantxiku 1.A	11	6	3	2	1
La Merced	9	6	3	0	3
Aozaraza	7	6	2	1	3
Aranzadi	4	6	1	1	4
Ipintza DBH	3	6	0	3	3
Txantxiku 1.B	2	6	0	2	4

### NESKAK

Taldea

Taldea	P	JP	I	B	G
San Viator	15	5	5	0	0
SFX B	13	7	4	1	2
Almen	12	4	4	0	0
Aranzadi A	11	6	3	2	1
Torrebaso	9	6	3	0	3
Elgeta	4	5	1	1	3
SFX A	3	6	1	0	5
La Merced	3	6	1	0	5
Arazadi B	2	4	0	2	2

P: puntuak • JP: jokatutako partidak • I: irabazitakoak • B: berdindutakoak • G: galdutakoak



Aurrekiroleko La Merced taldea.



Aurrekiroleko SFX B taldea.



## Gola baietz!

**H**orixe esan ote zuen jokalaririk honek baloia berriz jokoan jartzerakoan? Badirudi baietz, denak zain ditu eta! Azkenean, IKPk 5. Koka Juniors Basatik 2 amaitu zen partida.

### EZETZ ETA EZETZI!

Sokoakoak taldeak ezetz esan zuen. Ez zuela tokatzen zaien partida epaituko. Joan den asteburuan gertatu zen hori, igandean. Eguerdiko 12:00etan. Orlando Piratas eta Irati STS taldeen arteko partida epaitu beharra zuen Soko-

akoak taldeak, baina ez zuela egingo eta horrela gelditu zen, partida epailerik gabe.

Dena dela, partida jokatu egin zen, eta 5 eta 4 irabazi zuen Orlando Piratas taldeak.

Baina Sokoakoak taldeak hartutako erabakia ez da erantzunik gabe gelditu. Bonba

Taldiek, antolaketa taldeak, neurriak hartu zituen astelehenero egiten duen bileran. Bi puntu kenduko dizkio Sokoakoak taldeari eta hori gutxi balitz, fidantza barik gelditu da. Gauzak horrela, Sokoakoak bost punturekin gelditu da 9. jardunaldia jokatzeko. Aste

honetan Xhass Ugarteren aurka jokatu behar du.

Xhass taldekoek bi puntu gehiago dituzte eta joan den asteburuan Giraldu Conection taldekoei 7 eta 17 irabazi zieten, gauzak zailak dituzte Sokoakoak taldekoek aste honetan.

## Monte taberna

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56

## BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
**Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak**  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

## TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a  
Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

## Peque choll

**AURREZTU %70 BERRIA BEZALAXE EROSIZ**

Jantziak (0-16 urte) • Haurrentzako den dena • Haurdunaldirako jantziak • Mozorroak • Jostailuak • Oihalak • Liburuak • Kaseteak • Bideoak • Dekorazio osagarriak

Isasi kalea, 18 / EIBAR / Tel.: 943 20 03 10 **Interesatuko zaizu!**

Umeentzako gauzen

## SALEROSHETA

Ez bofa... Ez gorde... Ez oparitu...

## SALDU!!





## Sailkapenak

### Emaitzak

#### A taldea

DKB 2 - You Know 4  
 AT Lokala 7 - Ume Zikinak 4  
 Komando Alp. 5 - Bar Nuevo 3  
 Giraldilla 7 - Xhasss Ugarte 17  
 Goma 2 4 - Fraguél Gol 0  
 Atxanta el Ret. 1 - AC Surkos 5  
 Etxe Mobil 1 - DA Iriztu 2  
 Orlando 5 - Irati STS 4

#### B taldea

Leya 1 - Aurrera Bolie 3  
 Etxerat Tab. 1 - Serengeti 1  
 Timoftol 4 - Akta 1  
 Garaje Oscar 2 - Txeyenex 3  
 IKP 5 - Koka Juniors 2  
 Borrock & Roll 2 - Aldibi 6  
 Potroak 3 - Alai Gozokiak 4  
 Kamasutra 3 - Makanudos 4  
 Makai 5 - Sas T 8  
 Sokoakoak 3 - Betraye 4  
 EPEH 3 - Branka Tab. 11

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Orlando	8	6	2	0	50	24	14
You Know	7	7	0	0	49	18	14
AT Lokala	8	7	0	1	42	21	14
Kanpazar Harrobia	8	6	2	0	35	24	14
K. Alpagat	8	5	1	2	32	18	11
Irati STS	8	5	0	3	57	37	10
Ume zikinak	8	4	2	2	53	34	10
Goma 2	8	5	0	3	37	26	10
Kobate DKB	8	5	0	3	35	20	10
Sau. Scream	8	5	0	3	34	24	10
AC Surkos	8	4	1	3	41	26	9
DA Iriztu	8	4	3	1	35	44	9
Betrayer	8	4	0	4	32	35	8
Xhasss Ugar.	7	3	1	3	58	36	7
Fraguel Gol	8	3	0	5	27	37	6
Totem	8	3	0	5	18	30	6
Sokoakoak	8	2	1	5	23	41	5
Etxe Mobil	8	1	1	6	29	30	3
Giraldilla Con.	8	1	0	7	30	71	2
Atxanta el Ret.	8	0	2	6	17	68	2
Bar Nuevo	8	0	0	8	17	79	0
Lontxo Tab.	8	0	0	8	0	8	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Dribling	7	7	0	0	40	10	14
KJ Basati	8	6	0	2	52	31	12
Timoftol SMD	8	5	2	1	39	20	12
IKP	8	5	1	2	36	22	11
Txeyenex	8	5	1	2	32	32	11
Etxerat Tab.	8	4	2	2	38	24	10
Serengeti	8	4	2	2	24	27	10
Kamasutra	8	4	1	3	36	25	9
Branka Taberna	8	3	2	3	48	35	8
EPEH	8	4	0	4	38	41	8
Borrock & Roll	8	3	2	3	37	31	8
KK Jauriaritzari	8	4	0	4	29	23	8
Aldibi	7	3	1	3	30	36	7
Garaje Oscar	8	2	3	3	30	24	7
Alai Gozokiak	8	3	1	4	28	34	7
AKTA	8	3	1	4	21	19	7
Leya	8	2	2	4	21	29	6
Aurrera Bolie	8	2	2	4	19	31	6
Makanudos	8	2	1	5	22	54	5
Potroak	8	1	3	4	22	32	5
Sas T	8	1	1	6	25	44	3
Makai	8	0	0	8	32	75	0

**ARRASATE**  **KIROLAK**  
 Kontzexino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

## Hurrengo partidak / 9. jardunaldia

#### Iarunbata, 22

#### Zaldibar

08:50	Alai Gozokiak - Garaje Oscar	(Sokoakoak)
10:00	Sokoakoak - Xhasss Ugarte	(Alai Gozokiak)
11:00	Saukelu Scream - Goma 2	(Xhasss Ugarte)
12:00	Koka Juniors - Timoftol	(Saukelu)
13:00	Irati STS - AT Lokala	(Koka Basati)
14:00	Leya - IKP	(AT Lokala)
15:00	Betrayer - Orlando Piratas	(Leya)
16:00	Etxerat Taberna - EPEH	(Orlando)
17:00	Komando Alpagat - Kobate DKB	(EPEH)
18:00	Sas T - Potroak	(Komando)
19:00	You Know - Etxe Mobil	(Sas T)

#### Isturripe A

15:30 Aurrera Bolie - Txeyenex  
 17:00 Aldibi - Akta

#### Isturripe B

15:50 Branka Taberna - Makai (Giraldilla)  
 17:00 Bar Nuevo - Giraldilla Con. (Branka Tab.)

#### Igandea, 23

#### Zaldibar

09:50 DA Iriztu - AC Surkos (Kanpazar)  
 11:00 Fraguél Gol - Kanpazar Harrobia (AC Surkos)  
 12:00 Dribling - Kamasutra (Fraguel)  
 13:00 Makanudos - Serengeti (Dribling)

**Atsedena:** Ume Zikinak, Borrock & Roll, Atxanta el Retorno

## SASKIBALOA Gripearen eraginez



Taldea osatu ezinda ibili ziren kadete mailako Kenci Arrasatekoak joan den larunbatean. Ia talde erdia gripeak jota zegoen eta zazpi jokalaria baino ez ziren kantxaratu Ordiziaren aurkako partidari. Lehen zatian behintzat, bi taldeen arteko aldea ez zen oso handia izan. 18 eta 24 amaitu zuten lehenengo. Partidaren amaieran, ordea, 35 eta 48 irabazi zuten ordiziarrek.

Nagusiek, bestalde, garaipena ekarri zuten Errioxatik. Joan den igandean Patria Hispanari 65 eta 76 irabazi zioten.

Bigarren aldirako arerio zuzena ziren errioxarrak, sailkapenean lehenengo ziren eta. Errioxarrak irabazten hasi ziren, baina Lander Errastik hutsartea eskatu ondoren, defentsako tentsioa igo egin zen eta erasoan erritmoa bizi zuten arrasatearrek. Hone-la, 10. minuturako markagailua parekatzea lortu zuten arrasatearrek, 24-23. 18 pertsonal adierazi zizkieten epaileek arrasatearrei eta bigarren zatian ere epaileak etxekoen alde segitu zuten. Kenci-Arrasatek

arerioaren egoera fisiko eskasa aprobetxatuz, 65-76 irabazi zuten. Larunbatean, Ega-Pan taldearen aurka arituko dira 18:00etan Iturripen. Bisitariak hirugarren daude sailkapenean; norgehiagoka interesgarria izango da, beraz.

## FUTBOLA Kostata, baina irabazi



Bigarren gazte mailako Mondra taldeak garaipena bai, baina entrenatzaile laguntzailearen ustez, ez zen merezitako garaipena izan. Ez omen zuten nahikoa jokorakutsi. Partidaren hasieran Zarautzarrak aurreratu ziren markagailuan eta aurretik joan ziren ia 45 minutuz. Arrasatek berdindu egin zuten, baina bigarren zatia hasi bezain pronto, berriz aurreratu ziren bisitariak.

Azkenengo momentuan, ordea, etxekoen garaipena poltsikoratu zuten eta honekin batera, igoera aldiko bigarren partida irabazi. Partida 3 eta 2 amaitu zen. Lehen errejionaleko taldeak, bestalde, 2 eta 0 galdu zuten Elgoibarren aurka. Lehenengo minutuan aurkako penaltia adierazi zuten epaileak eta gero ez zuten marka-

gailua alde jartzeko aukerarik izan. Aste honetan ere kanpogan arituko da Juaninaren hamaikakoa. Soralezuzen jokatuko dute bigarren aldiko lehenengo partida. Zortzigarrenak amaitu dute lehenengo aldian eta liderrarengandik, Zumaia taldearengandik, 16 puntura.

## ERRUGBIA Galdu, baina zela?



Senior mailako errugbi taldeak galdu egin zuten joan den asteburuan Atletico de San Sebastian taldearen aurka. Joseba Maidagan eta Patxi Gorosabelek zuzentzen dute taldea eta Josebak adierazi zigunez, "partida lapurtu egin zigun ordezko epaileak". Dirudienez, epaile titularrak min hartu zuten eta ordezko lanean aurkako taldeko kide bat aritu zen, epaile lizentzia zuena. Hasieratik euren aldeko epaiak ematen izan omen zen eta arrasatearren aldeko entsegu bat ere ez omen zuten ikusi. Horrez gain, Potato kapitaina kanporatu egin zuten epaileak, berari kontuak eskatzeagatik, kontuan izanda gainera, kapitaina dela epaileari ezer esan diezaiokeen bakarra.

Kontuak kontu, 17 eta 12 galdu zutela eta aste honetan Gernikara joango direla, liderraren aurka neurtzera. Gernika lau puntura dute eta joan den asteburuan irabazi egin zuten Getxoren aurka.

## ESKUBALOA Nahi eta ezin



Esaldi horrekin labur daiteke larunbatean Arrasate Almen eskubaloi taldeak Iturripen egin zuena. Partida ondo hasi zuten, baina minutuak aurrera joan ahala, jokoak behera egin zuten eta honekin batera golek ere. Lehen zatia nahiko gogorra izan zen eta epaileak lau txartel hori erakutsi zituen. Urnietako jokalaria bat bigarren minutuan kaleratu egin zuten. 19. minutuan Urnietak partida berdintzea lortu zuten. Eta bigarren Urnietako taldea gogotsu atera eta bosgarren minuturako partidari buelta eman zion. Etxeko taldea erori egin zen eta azkenean 19 eta 22 galdu zuten etxekoen alde. Aste honetan Zumarragara joango dira.

Urolaren aurka jokatzen. Gazte mailakoak, berriz, etxean saiatuko dira Urnietaren aurka.

## Besaideren eski kanpaina

Formigal aukeratu dute Besaide mendi taldekoek aurtengo eski kanpainarako. Apirilera bitartean astebururo antolatuko dituzte eski irteerak.

Joan den asteburuan ekin zioten aurtengo kanpainari eta asteburu honetan ere Formigalera abiatuko dira.

Izena emateko Besaideren egoitzara joan behar da, astelehen, astearte edo asteazkenetan, arratsaldeko



18:30etatik 19:30etara bitartean.

Besaide mendi elkarteko bazkideek 12.500 pta ordaindu behar dute irteerako. Bazkide ez diren arrasatearrek 13.000 pta.n dute eskiatzera joateko aukera eta Arrasate kanpotik datozenek, berriz, 14.000 pta.ren truke.

Prezioaren barruan autobusa, hotela pentsio erdian eta erremontea sartzen dira. Ikas-taroak jaso nahi dituenak

2.500 pta. ordaindu beharko ditu. Lau orduko saioak izaten dira.

Bestalde, materiala alokatu beharra daukanak, beste 2.300 pta.ren truke lor dezake, bi egunetarako.

Irteerarako joateko autobusak Garibai kaletik ateratzen dira zapatu goizaldeko 05:00etan eta itzuleran, berriz, igandeko gaueko 21:00etan iristen dira Arrasatera.

# Hiru domina etxerako

Gipuzkoako txapelketan izan zen; joan den asteburuan Anoetan izan ziren Arrasate Kirolak Atletico Taldekoak eta hiru domina irabazi zituzten: urrea, zilarra eta brontzea. Bakoitzetik bat. Eta nortzuk izan ziren zorionekoak? Unai Sarabia hirugarren sailkatu zen 60 m.ko lasterketan. Zazpi segundu eta 16 ehunekoan egin zuen ibilbidea. Zilarra, edo bigarren tokia, Maitane Arizmendiariartek lortu zuen. 400 m.tan aritu zen Maitane eta minutu bat eta 7 segundutan bukatu zuen lasterketa.

Urrea, berriz, Jonathan Perezek irabazi zuen. Bera izan zen pertika jauzian lehengoak. Jonathanek 4 m.ko jauzia egitea lortu zuen.

## MARKA ONAK

Hiru dominez gain, marka onak egin zituzten arrasatearrek Anoetan jokatuako Gipuzkoako txapelketan. Unai Sarabiaren denboralitzateke aipagarriena. Espainiako gutxieneko denbora zazpi segundu eta hamabost ehuneko izanik, Unai ehuneko bat gehiago egin



zuen 60 m.ko lasterketan. Atzetik gelditu ziren Lointxo Avila, Remi Diosdado, Martin Davila, Oliver Fernandez eta Unai Elorza.

## EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Asteburu honetan Euskal Herriko txapelketa jokatu da Anoetan eta Arrasate Kirolak Atletico Taldeko kirolariak ere hantxe izango dira. Kategoria absolutuan jokatu da eta hantxe izango dira hiru dominak eskuratu zituzten kirolariak.

## AZPEITIKO KROSA

Bestalde, Arrasateko taldeko bi korrikalari egon ziren Azpeitiko krosean. Gipuzkoako txapelketarako baliagarria zen hori ere eta herriko bi korrikalariak betaranoetan aritu ziren. Jabier Mentxaka hirugarren sailkatu zen eta Cesar Diez, berriz, laugarren izan zen helmugan. Bata bestearen atzetik, beraz.

Asteburu honetan Elgoibarren dute hitzordua korrikalari beterano hauek, Juan Mugerza memorialean.

## Agur, Bittor Guridiri

Joan den igandean Udaltxera joan ziren Bittor Guridiri Agirreurreta zenaren lagun, ahaide eta Besaideko lagun taldekoak, azken agurra egitera. Horrenbeste maitate zuen mendiaren gainetik zabaldu nahi izan zituzten bere errautsak. Behelainoa izan zuten lagun Udaltxera igo zirenek, baina horrek ez zuen oztopatu Bittorri bertso bat bota eta omenaldi txiki baina beroa egitea.

“Bizitzan kemena behar da. Zu eredu izan zara. Beti gogoan izango zaitugu” dio-




en plaka oroigarria ere jarri zuten Udaltx gainean.

Udaberrian Anayet mendira joatekotan dira Bittorren

lagun taldekoak eta berak istripua izan zuen lekuan zabalduko dituzte errautsak.

Goian bego!



**ARRASATE  
KIROLAK**

Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazlearen artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saioan, sari mundiala etxeratzeke.

Galdera: Non sortu zen Think Pink?

Erantzuna: .....

Izen-abizenak: .....

Helbidea: .....

Tel.: .....

# “Emakume! hartu hitza eta erabakia”

Martxoaren 8rako hormirudi lehiaketa antolatu du Arrasateko Udaleko Emakume sailak. Laugarren aldia du aurtengo lehiaketa horrek, eta “Emakume! Hartu hitza eta erabakia” aukeratu dute goiburugisa.

Lehiaketan edozein pertsonak hartu ahal izango du parte, eta teknika ere libre izango da. Hormirudiak gehienez ere 50x70 zentimetrotako neurria izango du, eta leloa ere derrigorrez agertuko da. Lanek ez dute egilearen nortasunik azalduko, eta atzeko aldean lelo bat izango dute. Lelo bera gutunazal itxi batean idatziko



B. Garaizabal, iazko irabazlea.

da eta barruan egilearen datuak adieraziko dira.

### AZKEN EGUNA

Lanak otsailaren 18a baino

lehen aurkeztu beharko dira, ondorengo helbidera: Arrasateko Udala (Emakume saila), Herriko plaza z/g, 20.500 Arrasate. Argibide gehiago 943 790900 eta 943 794139 telefonoetan eska daitezke.

Irabazleak 70.000 pezeta poltsikoratuko ditu, eta epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da. Era berean, baliteke lehiaketara aurkeztutako hormirudi guztiekin erakusketa egitea, eta saririk lortu ez dutenek erakusketaren azken egunetik hasita hogeita hamar eguneko epea izango dute lanak jasotzeko.

## Etxeko lanak elkarrekin eginez

Arrasateko Udaleko Emakume sailak etxeko ardurak gizonetzkoen eta emakumezkoen artean trukatzeko tailerrak antolatu ditu. Emakumezkoentzako tailerretan iturgintza, elektrizitatea, brikolajea, pintura eta etxeko ekologia landuko dira. Gizonezkoentan, berriz, joskintza, lixatzea edo plantza, sukaldaritza, garbiketa eta etxeko ekologia.

Otsailetik apirilera bitartean iraugo dute tailerrek, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Izena Arrasateko Udaleko Emakume sailean eman beharko da, edo 943 790900 telefonora deitu. Izena ematea 2.000 pezeta kostako da.

## J. Garate Arriola beka aukeran

Bergarako udalak urtero ematen duen Justo Garate Arriola bekarako agiriak aurkezteko epea otsailaren 15ean bukatuko da. Iker-tzaile gazteengan ikerketa sustatzeko helburuarekin, urtero ematen da beka hau, Soziologia, Historia eta Euskal Filologiako gaiei zuzenduta.

Ikerketa lana euskaraz egin beharko da, eta hamaika hilabetekoa izango da bekaren iraupena, ematen den egunetik hasita. Diru zenbatekoa, berriz, milioi bat pezetakoa izango da.

### ESKEGILEAK

Bekaren eskaria norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek egin ahal izango dute, eta ezinbestekoa izango da diplomatu edo maila bereko tituluduna izatea. Taldeen kasuan gutxienez erdiek

bete beharko dute baldintza hau. Bestalde, eskatzaileek 35 urte baino gutxiago eduki beharko dute, eta eskegilea lantaldea bada, kide guztiek bete beharko dute baldintza hori. Horrez gain, eskegileek euskararako gaitasuna erakutsi beharko dute, EGA edo horren baliokidea den beste agiriren baten bidez.

### ESKAERA AURKEZTEKO

Bekaren eskabideak egiteko inprimaki normalizatuak Bergarako Udaleko Idazkaritza Orokorrean jaso ditzakete eskatzaile guztiek, eta honako helbidera bidali beharko dira: Bergarako udala; Jarduerak, Kultura taldeak, Jaiak eta Gazteria Batzordea; Justo Garate Arriola beka; San Martin z/g; 20570 Bergara.

## “Al Andalus” taldeak agenda oparoa

Al Andalus elkarteak aurtengo 10 urte beteko dituela eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu elkarteak urtarilaren 22 eta 29rako. Datorren larunbatean, Lasarteko “Hijos de Andalucía” elkarteari ongi etorria egingo diote 11:00etan. 13:00etan Santurtziarrek sardinak prestatzeari ekingo diote, 15:00etan bazkaria izango baitute andaluziarrek. Gero kultur ekitaldiak eskainiko dituzte, 18:30etik aurrera.

### LASARTEKOEKIN

Baina urtarilaren 29rako ere gorde dituzte beste hainbat ekitaldi. Goizeko 11:00etan, esate baterako, Lasarteko elkarte andaluziarrari egingo diote ongi etorria; ondoren, arratsaldeko 15:00etan, bazkaria egingo dute, arratsalde partean kultura eman-kizunekin hasteko.

## Koldo Amestoy ipuin kontalaria Arrasaten



Koldo Amestoy ipuin kontalaria Arrasaten izango da urtarilaren 25ean. Monterrongo Udal Liburutegiak antolatuta, hainbat ipuin kontatuko du haur liburutegian. Arratsaldeko 18:00etan hasiko du kontakizuna eta zortzi urte baino gehiago dituzten guztiei zuzenduta dago.

ABADDOM (MUSIKA TALDEA)

## “Pozik gaude udalak eman digun babesarekin”

Abaddom taldeak maketa kaleratu du: “Príncipe del país de las lágrimas”. Shot estudioan egin dituzte grabaketa eta Arrasateko udalak dirulaguntza eman die. Esteban Mulasek, Aitor Pavonek eta Iker Arboniesek kontatu digute guztia.

### — Noiz sortu zen taldea?

— Duela urtebete. Iñaki Vazquez eta Esteban Mulas izan ziren hasieran. Gaur egun sei-zazpi kide gara. Esteban Mulasek gitarra eta pianoa jotzen ditu, Aitor Pavonek gitarra, Amaia Pavonek biolina, Iker Arboniesek baxua, Irati Gallastegik zeharkako flauta eta Iñaki Vazquezek abestu egiten du.

### — Zein estilotako kantuek?


— Konposatzaile nagusia Esteban da eta era guztietako musika entzuten du. Beraz, Abaddom taldearen kantuek ere estilo askoren influentzia dute, bluesetik hasi eta klasikora artekoa.

### — Lehenengo maketa atera berri duzue.

— Bai. “Príncipe del país de las lágrimas” du izenburua. Shot estudioan grabatu dugu, hiru egun eta erdian edo. Minutu eta erdiko abesti instrumentala da lehenengoa, eta beste lau kantu ere baditu. Beste hogeit bat abesti ere baditugu.

### — Kantuetako letrak nork egin ditu?

— Gaztelaniaz eta ingelesez abestu izan dugu orain arte, eta aurrerantz euskaraz hasteko asmoa ere badugu. Iñaki Vazquezek, “Txinok”, idazten ditu abestietako letrak, eta guztiek dute zerikusia maitasunarekin.



### — Udalak diruz lagundu du zuen lana.

— Bai, oso pozik gaude udalaren jarraitzearekin. Horren truke, udalak eskatutakoan kontzertuak eskaini beharko ditugu, eta hori ere gure aldeko faktorea da.

### — Etokizunean zer?

— Musika egiten segitu nahi dugu, eta musikatik bizi izatea posible badugu, askoz ere hobeto. Dena dela, hori oso urruti ikusten dugu. Momentuz ez dugu presarik, eta abestiak jotzen segitu nahi dugu, gozatzen.

### — Zer zailtasun izaten du musika talde batek aurrera egiteko?

— Denetik izan dezake. Garrantzitsuena taldekideen artean giro ona izatea da. Konfiantzak edo adiskidetasunak apur bat huts egitea nahikoa da arazoekin hasteko. Taldeko desadostasunak musikan islatzen dira.

## aste gazte

### ■ DIRULAGUNTZAK

• Bergarako Udalaren eskuetik, “Justo Garate Arriola” bekak historia arloko ikerketa lanak egiteko. Lana urtebetean zehar egin beharko da eta euskaraz izan beharko da. Epea: otsailak 15.

### ■ LANA

• Arrasateko Udalerako bi enplegu teknikari behar dira egun erdiz lan egiteko. Epea: urtarrilak 24.

• Bergarako Udalerako udal-tzaina behar da. Epea: urtarrilak 25.

### ■ IKASTAROAK

• Udaleko Gazte Zerbitzuak hainbat ikastaro antolatu du.

- Alboka ikastaroa. Urtarrilaren 29tik ekainaren 17ra, larunbat goizetan, Arrasate Musikalen. Matrikula 3.000 pta (2.000 pta ikasle edo langabeentzat).

- Txalaparta ikastaroa: otsailaren 11tik maiatzaren 13ra. Ostiraletan, eta larunbatetan, Musakolako Gazte Txokoa. Matrikula 2.000 pta.

• Ekin emakume elkarteak eskulan ikastaroa antolatu du, astearte arratsaldetarako eta dantza ikastaroa astelehenetan.

• Leintz Zeramika Eskolak zeramika ikastaroa antolatu du. Astearte eta ostegunetan, 19:00tik 21:00etara izango da.

### ■ LEHIAKETAK

• Udaleko Emakume Sailak, Martxoaren 8ko kartel lehiaketa antolatu du “Emakume! Hartu hitza eta erabakia” lelopean. Epea: otsailak 18.

• AED elkarteak urteroko “Arrasate Lehiaketak” deitu ditu, komikia, euskara testigantza, irratireportaje, ipuin, poesia eta bertso-paper arloetan. Lanak aurkezteko epea: otsailak 11.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

“Musika talde batean garrantzitsuena kideen artean giro ona izatea da”



# Programazioa

## OSTIRALA, 21

- 13:30** Albiste aurrerapena  
**13:35** Gatza eta Berakatzatza.  
 Aitor Aizpurua, Oñatiko Iturritxo jatetxeko sukaldariak prestaturiko plater bat.  
**13:45** Musiklasik, Carmina Burana eta Arrasateko Akordeoi txapelketa (errepika).  
**20:00/20:30/21:00** Berriak  
**21:30** Astebete. Maider Osaren eskutik asteari errepasoa egingo diogu.



Maider Osa.

- 22:00** Soinuz Blai. Miren Gonzalezek aurkeztuta (errepika).

## LARUNBATA, 22

- 13:30** Asteko programen errepikapena: Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Musiklasik, Soinuz Blai eta Astebete.

## IGANDEA, 23

- 13:30** Asteko programen errepikapena: Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Musiklasik, Soinuz Blai eta Astebete.

## ASTELEHENA, 24

- 13:30** Albiste aurrerapena.  
**13:35** Gatza eta Berakatzatza.  
 Aitor Aizpurua, Oñatiko Iturritxo jatetxeko sukaldariaren eskutik.  
**13:45** Astebete (errepika).  
**20:00/20:30/21:00** Berriak.  
**21:30** Mondrasport. Itxaro Zubillaga eta Xabier Urzelaireren eskutik asteburuko kirol emaitzak jakingo ditugu.



Itxaro Zubillaga.

- 22:10** Gatza eta Berakatzatza (errepika).

## ASTEARTEA, 25

- 13:30** Albiste aurrerapena.  
**13:35** Gatza eta Berakatzatza.  
 Aitor Aizpurua, Oñatiko Iturritxo jatetxeko sukaldariaren eskutik.  
**13:45** Mondrasport (errepika).  
**19:20** Jolasplast. Mikel Lizarralde aurkeztutako haurren lehiaketa.  
**20:00/20:30/21:00** Berriak  
**21:30** Hamaika Magazin.  
 Arantzazu Lagunillak aurkeztuta, osasuna, sexualitatea, eta beste hainbat konturen berri jakiteko aukera izango da.  
**22:00** Gatza eta Berakatzatza (errepika).

## ASTEAZKENA, 26

- 13:30** Albiste aurrerapena  
**13:35** Gatza eta Berakatzatza.  
 Aitor Aizpurua, Oñatiko Iturritxo jatetxeko sukaldariaren eskutik.  
**13:45** Hamaika Magazin.  
 Arantzazu Lagunillak aurkeztuta, osasuna, sexualitatea, horoskopoa eta beste hainbat jakingai eskuratzeko aukera izango da (errepika).



Arantzazu Lagunilla.

- 20:00/20:30/21:00** Berriak  
**21:30** Aurrez Aurre. Edurne Mujikaren eskutik Arrasatear interesgarriren baten bizimodua ezagutzeko aukera izango dugu.  
**22:00** Gatza eta Berakatzatza (errepika).  
**22:10** Soinuz Blai.

## OSTEGUNA, 27

- 13:30** Albiste aurrerapena  
**13:35** Gatza eta Berakatzatza.  
 Aitor Aizpurua, Oñatiko Iturritxo jatetxeko sukaldariaren eskutik.  
**13:45** Aurrez Aurre (errepika)  
**20:00/20:30/21:00** Berriak  
**21:30** Ekilan. Alberto Gorritiberreak Iñaki Bordes, Jose Luis Arregi eta Iñaki Aranburu gonbidatuko ditu.  
**22:00** Gatza eta Berakatzatza (errepika).  
**22:10** Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkeztuta.

## OSTIRALA, 28

- 13:30** Albiste aurrerapena  
**13:35** Gatza eta Berakatzatza, Aitor Aizpurua sukaldariaren eskutik.  
**13:45** Guganda (errepika).  
**20:00/20:30/21:00** Berriak  
**21:30** Astebete. Maider Osaren eskutik asteari errepasoa egingo diogu.  
**22:00** Gatza eta Berakatzatza (errepika).  
**22:10** Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkeztuta (errepika).

## Gatza eta Berakatzatza

**Sukaldaria:** Aitor Aizpurua (Iturritxo jatetxea) Oñati.

### NOIZ

Astelehena 24  
 Asteartea 25  
 Asteazkena 26  
 Osteguna 27  
 Ostirala 28

### PLATERA

Almeja eta endibia nahaskia.  
 Txopitoak letxugarekin.  
 Ahate zopa tipuleta eta piperrekin.  
 Galeperra foie-gras erara.  
 Fruta zopa.

# 10 urte, 10 ordutan



Datorren otsailaren 13an ATBk 10 urte bete-ko ditu. Denbora bizkor joan dela izan dai-teke lehen pentsamendua. Zenbaitentzat ez dago hain urrun Koldo Rodriguez patxadosoak lehen albistegia eman zuen eguna. Edo Anuska Lasa haur artean ager-tzen hasi zena. Edo Mikel/Patxi/Pepe hirukote xelebrea. Edo Jose Mari Velez, Jose Ramon Elorza eta beste hainbat bide-gile.

Ez dirudi hainbeste denbora igaro denik Anne Igartiburu *ATBketan* hasi zene-tik. Edo Jon Andueza kiroletan. Edo Jon Sarasua parean tokatutako pareekin barri-ketan. Edo Maider Egües bankuan jarri-takoekin *Txatxaran*.

Izenak gogoratzen hasita, bigarren pentsamendua: zenbait jende ibili den 10 urte hauetan ATBren bueltan! Kamara aurrekoak dira, noski, ezagunenak: Kar-mele Zuazubiskar sukalde eta elkartean, Naiara Gorroño eta bere koadrila *Pube-an*, Annek lehiaketa utzi eta famosoekin sofán, Iban eta Jabi Annek utzitako lehia-ketan, Idoia Peñakoba ondoren, Aintza-

ne Gardoki, berriz, Anne sofa utzi eta mun-du zabalera joan zenean, Arantxa eta Bittor osasun kontuetan, Itxaro Zubilla-ga kiroletan, Marta eta Inazio klasikoa omen den musikan, Eneko Aranguren lehe-nengo eta Gari Kortazar gero munduan zehar *Ibilixan*, Unai Iparragirre milasal-tseroa oraindik Unai Torres zenean...

Ez daude denak, are gutxiago kama-ra ostekoak kontatuz gero. Baina ez dugu inor ahaztu nahi, guztiek jarri baitute berea ATBk 10 urte bete ditzan.

Horregatik ari gara prestatzen 10 URTE, 10 ORDUTAN saioa, denon arte-an hamar urteotako lana erreparatzeko. Otsailaren 13an, igandez, eguerdiko 12etan hasi eta gaueko 10ak arte, saio zahar eta berriagoak, lehengo aurkezle eta orain-goak, eta irudi bitxiak eskainiko ditu-gu, etengabeko sokan. Baina horretara-ko, zure laguntza behar dugu. Lagundu egiguzu gogoratzen. Zenbaki honetan agertzen den txartelari erantzun eta esai-guzu zein saio, aurkezle, gonbidatu edo irudi ikusi nahi duzun berriro. Bai?

## Kiroletako lehiaketa berria

Arrasate Kirolak Lehiaketa abia-razi dute Arrasate Press eta Arra-sate Telebistak. Parte hartzeko modua oso erraza da. Astero Arra-sate Pressen eta astelehenero ATBko Mondrasport saioan egin-go den galdera erantzun behar du saria eskuratu nahi duenak.

Idatziz parte hartu nahi due-nak, Arrasate Pressen agertuko den iragarkiko txartela moztu eta Otalora Lizentziatua kaleko 31. zenbakian duen egoitzara ekarri beharko du.

Bestalde, zuzenean ere parte har daiteke. Horretarako, aste-lehenero Mondrasport saioan Itxa-ro Zubillagak eta Xabier Urzelaik galdera egiten dutenean telefonoz deitu ahal izango da, 943 71 23 93 zenbakira.

Erantzun zuzena ematen duten guztien artean zozketa egingo da urtarrilaren 31n Mondrasport saio-an. Saria Arrasate Kirolak babes-leak emango du.

Lehiaketa honek ekainera arte iraungo du eta hilero opari bikai-nak zotz egin dira.

**Asteroko galderari erantzun eta sari bikaina eskuratzeko aukera izango duzu, Arrasate Kirolak Lehiaketan!**

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte eta ostiraletan  
5etatik 8etara.  
Tel.: 943 79 26 99

**Hilbera kafetegia**  
Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70

**ARRASATE HOTELA**  
  
Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE

**LAKET**  
Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis  
Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

- Etxe txiki eta merkea salgai Eibarren. Tel.: 943 12 71 04.

### 3. Errentan emateko

- Etxebizitza alokagai Zigarrolan. Tel.: 656 72 95 93.

- Etxebizitza alokagai Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 53 70.

### 4. Errentan hartzeko

- Arrasate erdialdean edo San Andresen eta inguruan emakume batentzat etxebizitza behar da errentan hartzeko. Tel.: 606 86 71 97.

- Ikasle batek gela bat behar du otsailetik aurrera. Tel.: 943 83 36 57.

### 5. Etxeak osatzeko

- Etxebizitza merke bat alokatuko nuke Arrasaten edo Aretxabaletan. Utzi zure datuak telefono hauetan: 943 79 34 37 edo 943 79 15 95.

- Etxebizitza osatuko nuke Arrasaten otsailetik aurrera. Tel.: 943 61 99 24.

- Pertsona bat behar da otsailetik aurrera bi gelako etxebizitza bat osatzeko, San Andres auzoan. Tel.: 943 83 36 57.

- Logela bat dut alokagai etxebizitza batean. Tel.: 617 72 47 83

## GARAJEAK

### 7. Saldu

- Garajea salgai Kontzeziño kalean. Tel.: 943 79 54 07.

- Garajea salgai, Jose Luis Iñarra pasealekuko 18an, Altamiran. Tel.: 943 79 23 27. 14:00 - 17:00 eta 20:00etatik aurrera.

### 9. Errentan emateko

- Estreinatua gabe dagoen garaje itxia alokatzen dut Uarkapen. Tel.: 943 79 01 84. 20:00tik aurrera.

- Garaje itxia alokatzen da Uarkapen. Tel.: 943 79 13 97.

- Garajea alokatzen da Uarkape kalean. Tel.: 943 79 84 35.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

- Bi garaje itxi alokatzen dira Arima zuri plazan, bietako bat bikoitza. Tel.: 656 75 91 98.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

- Akademia batek eskola partikularrak emateko ikasgela alokatzen du. Tel.: 943 79 18 70.

- Prentsa saltzen duen denda salgai edo alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 20.

### 14. Errentan emateko

- Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m<sup>2</sup>ko eta bi solairuko lokaia alokagai. Tel.: 943 79 42 65.

- Prentsa saltzen duen denda salgai edo alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 20.

## LANA

### 17. Eskaintza

- Esperientziadun emakume euskalduna orduka etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko prest. Tel.: 943

79 37 68.

- Ospital laguntzaile tituluduna prest pertsona nagusiak eta gaixoak zaindu eta eramateko, auto handi batean. Tel.: 609 77 01 33.

- Neska gaztea prest umeak zaindu edo zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 943 79 68 77.

- Emakumea prest arratsalde umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

- Bi neska gaztek arratsalde lan egingo lukete, umeak zaintzen edo bestelakoetan.

- Ile apaintzaile titulatuak lan egiteko prest. Tel.: 943 79 53 57. Mainer.

- Neska umeak zaintzeko prest, arratsaldetan. Tel.: 943 71 53 74.

### 18. Eskaerak

- Jatetxe batean sukaldaria behar da. Tel.: 943 79 24 58.

- Pertsona bat behar da Aramaion (Uribarri auzoan) Intxaurren Elkarteko garbiketarako egiteko. Interesatuok deitu 945 44 50 68 telefonora. Jabier edo Klaragatik galdetu.

- Jatetxe batean garbiketarako pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 24 58.

- Gazte bat behar da taberna batean lan egiteko. Lana ordukakoa da, ikasleentzat egokia. Tel.: 656 72 14 82.

- Emakume bat behar da bi ume zaintzeko. Tel.: 943 79 49 92. Gaeuz.

- Pertsona bat behar da haur bat zaintzeko. Interesatuok deitu 639 45 85 08 telefonora. Mertxe.

- Pertsona bat behar da umeak orduka zaintzeko. Tel.: 639 27 26 78. 20:00 - 22:00

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

- Ingeles filologia ikasten ari den mutilak, inegeleseko eskola partikularrak emango lituzke Mondragoen edo Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.

- Esperientzia eta EGA titulua duen lizentziatuak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditu, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

### 21. Eskaerak

- Abenduan zehar alemanierazko eskolak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 99 82. Miren.

- Finantza matematikako eskola partikularrak jasoko nituzke. Tel.: 943 77 07 03. Vanesa.

- Alemanierazko eskola partikularrak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 84 44.

- Hirugarren DBHko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 42.

- Logseko 2. mailako matematikako eta fisikako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 69.

## MOTORRA

### 23. Saldu

- Renault 21 TXE salgai. A/A, E/E, D/D, C/C, remolkatzeko gakoa. 120 cv. Merkea. Tel.: 600 43 78 02. Urtzi.

- R-21 turbo autoa salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 15 96. Asier.

- Nissan Serena 1.6 LX bat saltzen dut. 1994ko otsailekoa da, gasolina erabiltzen du erregaitzat eta 8 lagunentzat du lekua. Zehastasan



gehiago nahi izanez gero deitu lan orduetan 943 71 24 00 telefonora. Xabier.

• Yamaha XJ-600 salgai. Egoera onean, merkea. Bi maleta oparizat. Tel.: 943 79 26 35.

• Kawasaki Volcan 500 cc. motora salgai. 21.000 km.ditu. Pantaila, bizkar babesa, defentsak eta alarma, urrutiko kontrolagailuarekin. Kaskoa dohain. 535.000 pta, negoziagarriak. Tel.: 943 77 08 69.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• 42 zenbakiko zeharkaldirako eskiak salgai. Lowa marka; berriak daude. Deitu 943 79 84 04 edo 943 79 27 39 telefonoetara. Andoni.

• Opel Comborentzat, auto gainean trasteak eramateko bi barra salgai. Merke-merke. Tel.: 943 79 15 96. Unai.

• Shin-tzu txakur kumeak salgai. Tel.: 946 84 26 86.

• Lau urteko bi logela oso salgai. Tel.: 616 81 15 96. Jose Luis.

• Bizikleta estatikoa salgai. Tel.: 943

79 12 46.

• Digitech RP7 balbe gitarra pedallera salgai. Prezioa: 66.000 pta. Tel.: 943 79 30 77. Liher.

• Boxer arrazako txakur kumeak salgai, pedigreearekin. Tel.: 696 05 73 46.

• Euskal artzai txakurraren kumea salgai. Hilabete eta erdikoa. Merke. Tel.: 943 79 60 48. Nerea.

• SWR Twelve Bass Combo Celestine marka duen 100 W-dun aplikadorea eta lbanez baxu elektrikoa bere kutxatilarekin batera, salgai. Ondo zainduta eta egoera onean. Tel.: 943 79 94 49. Oskar.

• Bulegorako altzariak salgai. Tel.: 943 79 84 35.

• Umeentzako kotxetxoak salgai. Prezio onean. Tel.: 943 79 71 52. Isa. Bulego orduetan deitu.

• Bigarren eskuko Eiccini 100 akordeoia salgai. Tel.: 945 40 33 63.

• Soinu txikia salgai. Berria, zero sette. Solen afinatua. 190.000 pta. Tel.: 945 27 44 26.

• Fondoko eskiak salgai, ekipo guttia, neurria 42, bi aldiz besterik ez ditut erabili. Tel.: 943 79 88 83. Mikel.

### 27. Erosi

• Xoxoa disketeak ateratako LPak erosten ditut: Lisker, Itoiz, Itziar, etab. Tel.: 943 52 65 77.

### 29. Eman

• Ehizako hiru txakurkume emateko. Bi hilabete baino ez dute. Tel.: 943 79 55 07.

### 31. Galdu

• Urrezko eskumuturrekoa galdu zait Larrea plaza eta San Viator Txiki inguruan. Aurkitu baduzu, deitu 943 79 81 50 telefonora, mesedez.

• Jokin Zaitegi plazan bi giltza-sorta galdu nituen. Sobre baten barruan zeuden. Aurkitu dituenak, mesedez, telefono honetara deitu dezala: 943 75 22 74. Arratsaldez.

• Plumifero urdin bat galdu dut azoka inguruan. Tel. 943 77 04 21.

• San Andres inguruan montura marroia eta aumento handiko betaurrekoak galdu nituen, orain dela 15 bat egun. Tel.: 943 79 45 16.

• Ceneton Minolta argazki kamera

galdu nuen Teilamendin, urtarriaren 15ean. Norbaitek aurkitu badu dei dezala 943 79 37 83 telefonora.

### 32. Aurkitu

• Urrezko katea dominarekin, lñaki eta data jartzen duena, Udaltzaingoan dago jasota.

• Teilamendi ondoko tontorrean itxura oneko argazki kamara aurkitu nuen igandean. Teleobjetibo, flasha eta bestelako osagarriak dauza barruan. Interesatuok deitu 943 79 69 84.


## HARREMANAK

### 35. Kontaktuak

• Deba Garaiko grafologo batekin harremanetan jarriko ginateke. Tel.: 943 71 25 11.

• Gasteizera arratsaldeko 16:00ak aldera egunero autoz baldin bazoaz, gastuak banatuko nituzke. Tel.: 943 79 58 88. Maite, gaez deitu.

• Bartzelonako telekomunikazio enpresa garrantzitsuak inbertsorea behar du (10 milioitik gora) Tel.: 943 22 51 61. lñaki.



**WERU®**  
**Ate + leihoak**



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95  
ARRASATE



*Salterain*

PVC-zko ate eta  
leihoez gain:  
moksetak,  
zoru arinak,  
kortxoak,  
Louverdrape  
kortinak,  
Kortinoba, testila...



**L** 930 urte inguruan ateratakoa da argazki hau. Egun horretan, Rafaela Ruiz (ezkerrean) eta Felisa Ibañez de Opakua "Txomin Txiki" (eskuinean) bidaiaren bat egitera joan eta argazkia ateratzeko aprobetxatu zuten tren geltoki inguruan.

Orain INEMeko bulegoak dauden tokian zegoen geltokia. Maltzagatik Gasteizerako bidea egiten zuen trena pasatzen zen Mondragoetik. Beste non-bait joateko, Bilbora edo Donostiara, adibidez, Maltzagan tren aldaketa egin behar izaten zen. 250 pezeta balio zuen Maltzagatik Gasteizerako joan-etorriak.

Orduko trena tranbia itxurakoa zen. Makina bat eta bizpauru bagoi zituen. Lehenengo eta bigarren mailako trenak zeuden. Bigarren mailakoak egurrezko jarlekuak izaten zituen, lehenengo mailakoak, berriz, egurra, filtro gris batez inguratuta. Pertsoez gain, trenek herrietan salerosteko produktuak ere garraiatzen zituzten, bai dendetarako eta baita lantegietarako ere. Nahiko tren karrak izaten ziren ordukoak eta gainera, izugarriko atzerapenez ibiltzen ziren.

Igelaren Iturri inguruan, hesi zaina egoten zen, kaxeta edo garita batean. Trena zetorreanean trapu edo bandera gorri batekin jendeari abisatu eta trenbidean kate bat jarriaz pasatzen ez lagatzea izaten zen bere lana. Emakumezko batek bete ohi zuen lan hori. Zerrajerarako sarreran ere beste hesi-zaintzaile bat egoten zen.

Tren geltokiarekin lotuta, ohitura bitxia izan den da urte luzez Mondragoen: herriko bandak emanaldiak ematen zituenean, atsedendietan, herritarrek geltokiraino joaten omen ziren pasiadan.

Argazkia : Arantza Alonso  
Berriemalea: Teodoro Alonso.

**Plus Ultra  
taberna**

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57



**LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE**

Logopedia eta psikologia  
tratamendu kliniko eta  
hezitzaileak haur eta  
helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea  
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE

**ZUBIZARRETA  
LANTEGIAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

# MILURTEKO BERRIAREN IKASTOLA




ALMEN IKASTOLA • ARRASATEKO IKASTOLA • LEHENHITZ HAUR IKASTOLA

**GURE IKASTOLETAKO BERRI IZATEKO ARRASATEKO BULEGOAN  
INFORMATU ZAITEZ**



**Ordutegia:**



Tel. Mugikorra: 636 62 14 13  
(Bulego Ordutan)





**GRUPO**



**Amuebladora  
Mondragonesa**

**a eme Interiores**  
Garibai 9. 943 79 15 03

**Centro Hogar Muebles**  
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

**Sofa Leku**  
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 03

**a eme Sukaldeak**  
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

**ARRASATE**

